

HIZNET 2002-2003

Sakontze saioa

2003ko iraila

***EAE-KO
JUSTIZIA
ADMINISTRAZIOKO
ESPERIENTZIA
PILOTUAK***

Joseba Iriondo Goti

AURKIBIDEA

1. Sarrera.....	2
2. Lan honen helburuak eta hipotesiak.....	3
2.1. Helburuak.....	3
2.2. Hipotesiak.....	4
3. Euskararen normalkuntza ibilbidea Justizia Administrazioan.....	5
3.1. Garapen historikoa.....	5
3.2. Zenbait argibide.....	7
3.3. Gaur egungo egoera.....	7
4. EAEko Justizia Administrazioko esperientzia pilotuak.....	9
4.1. Aurrekariak.....	9
4.2. Esperientzia pilotuen helburuak.....	9
4.3. Esperientzia pilotuen irizpideak.....	10
4.4. Esperientzia pilotuetan erabilitako metodologia.....	18
4.5. Esperientzia pilotuetako parte hartzaileak.....	20
4.6. Esperientzia pilotuetako faseak.....	21
4.6.1. Taldeen eraketa.....	25
4.6.2. Diagnosia.....	25
4.6.3. Irtenbideak zehaztetik helburuen proposamenera.....	28
4.6.4. Ekintzen inplementazioa.....	30
4.6.5. Ebaluazioa.....	31
5. Ondorioak.....	39
6. Azken hausnarketa edota gogoeta.....	44
7. Erabilitako bibliografia.....	45
8. Eranskinak.....	47
4.2. 1. Eranskina: EAEko udalerrien derrigortasun indizeak.....	47
4.3. 2. Eranskina: EAEko organo judizialen banaketa eta egitekoak	49
4.4. 3. Eranskina: Hobetze taldeen metodologia.....	53
4.5. 4. Eranskina: Arrain ezkata.....	54
4.6. 5. Eranskina: Jarduera plana.....	55
4.7. 6. Eranskina: Galdesorta.....	58

1. Sarrera

Hogei urte baino gehiago badira ere Euskararen Arauzkotezko Legea¹ onartu zenetik eta zenbait esparrutako euskararen normalkuntza urruti izan oraindik, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioan ematen ari dira zenbait urrats hizkuntza normalkuntzan, apurka-apurka bada ere. Horietatik, Justizia Administrazioko lehenengo ekimenak hizkuntza gaitasunari begirakoak izan ziren, besteak beste, langileentzako euskara ikastaroak antolatuaz.

Denbora aurrera joan ahala, ordea, gaitasunari ez ezik erabilerari ere ekin behar zitzaiola jabetuz, EAEko Justizia Administrazioarekiko erabilera neurriak proposatzen dituen Dekretua² abiaburu izanik, euskararen erabilera bultzatzeko esperientzia pilotuen dinamikari ekin zitzaion 2002ko uda aldera.

¹

10/1982 LEGEA, azaroaren 24koa, euskararen erabilpena arauzkotzekoa. EHAA, 160 zk., 1982/12/16.

²

117/2001 DEKRETUA, ekainaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioko hizkuntza normalkuntzarako neurriak finkatzen dituenak. EHAA, 137. Zk., 2001/07/17.

2. Lan honen helburuak eta hipotesiak

Edozein lan aurkeztu eta plazaratu aurretik, lehenik eta behin, argitzea dago zertaz diharduen, zertarako egiten den eta zer lortu nahi den horren bitartez.

Justizia Administrazioaz dihardugunean, badirudi, gehienontzat, bederen, urruneko erakunde batez ari garela eta ez gara konturatzen, adibidez, gure herri guztietan izan baditugula bake-epaitegiak eta, hain zuzen ere, horien bitartez bideratzen dituela Justizia Administrazioak bere ekimenetako asko.

Lan honen nondik norakoak zein diren argitzeko, Justizia Administrazioko euskararen erabilera proiektuan gehienbat 2002ko irailetik 2003ko maiatza arte izandakoa aurkezteaz gain, 7-8 hilabete horietan egindakoari buruzko hipotesi batzuk azaleratu nahi dira eta, halaber, aztertu zer neurritan bete diren hasieran genituen hipotesi horiek eta jarritako helburuak egokiak izan ote ziren; izan ere, hobetze taldeak eratu orduan, baldintza jakin batzuei jarriki eratu ziren.

2.1. Helburuak

Euskararen erabilera proiektua EAEko Justizia Administrazioan ezartzerakoan, besteak beste, bi izan dira helburu nagusiak:

- ✓ Herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea Justizia Administrazioetik bideratzen den zerbitzutik
- ✓ Eta, aldi berean, hainbat urtetan Justizia Administrazioko funtzionarioen euskalduntzean inbertitutakoa errentabilizatzea.

Helburuen lorpenerako estrategiak bideratu orduan, aipatutako helburu horiek, mugatuta daude

- ⇒ Justizia Administrazioaren atomizazioagatik: neurri handi batean, organoen egituraketak, osaketak, funtzioak eta kokapenak baldintzatzen dute helburuen lorgarritasuna.
- ⇒ Baliabideengatik: helburuak lortu nahi badira, baliabideekin ere kontatu beharra dago eta, batez ere, mugatuak direnean, lehentasunetan datza gakoa.

Hortaz, helburu eta muga horiek kontuan, organo judizialen³ hautaketa selektiboa egiteari ekin zitzaion 2002ko uda aurretik, besteak beste, ondoko irizpide hauei jarraiki: organoen eragin

³

Justizia Administrazioak bere ekitekoak bideratzeko dituen erakunde eta zerbitzu mota desberdinak: bake-epaitegiak, Lehen Auzialdiko epaitegiak, Instrukzioko epaitegiak, etab.

2. Eranskinean txertatu da argibideetarako informazioa; izan ere, nahitaezkoa baita jakitea zertaz ari garen organo judizial zehatz batzuk aipatu orduan.

esparruko egoera soziolinguistikoa⁴, organoaren beraren euskaldunen portzentaia, organoetako partaideen adostasuna eta organo bakoitzaren izaera eta funtzioak.

Lan honen mugak kontuan hartuz gero, azal-azalek bada ere, helburuok nola bete diren aztertuko da; betiere, kontuan izanik organo judizial bakoitzak bere helburuak zehaztu dituela berariaz egindako jarduera planean.

2.2. Hipotesiak

Proiekturik gehienetan, hasierako azterketak egin ondoren eta aurreiritziekin bukatutakoan, hipotesietara jotzea izaten da bidea. EAEko Justizia Administrazioako euskararen erabilera areagotzeko proiektuan erabateko garrantzia izan dute hipotesien oinarri-oinarrian izandako zenbait ezaugarriak: partaidetzak, metodologiak, eremu soziolinguistikoak, organo judizial bakoitzaren ezaugarriak, etab. Aurretiaz, dena den, prozesua baldintzatu duten zenbait faktore izan dira eta garrantzitsuenak landutako hipotesietan zehaztu ziren, ondokoetan, alegia:

- ✓ Metodologia parte hartzailearen onurak: derrigortasunik aplikatu ez daitekeen erakundeetan, hau da, hizkuntza normalkuntza planik ezartzeko babes nahikorik ez dagoenekoetan, zenbat eta gehiago txertatu metodologia parte hartzailea orduan eta nabarmenagoak dira emaitzak. Izan ere, era horretan, esperientzia pilotuetako partaideak eurak dira egile eta eragile nagusiak, nahiz eta landutako arloek euskara normalkuntza plan zabal baten hedadurarik hartzen ez duten.
- ✓ Hizkuntza gaitasuna: Esperientzia pilotuetako partaideak zenbat eta euskaldunagoak izan, orduan eta konpromiso handiagoa izango dute EAEko Justizia Administrazioaren zerbitzuan euskaraz aritzeko, ahoz zein idatziz.
- ✓ Esparru soziolinguistikoa: Zenbat eta ingurumari euskaldunagoan izan EAEko Justizia Administrazioako organo judiziala, orduan eta euskarazko produkzio handiagoa, ahoz zein idatziz.
- ✓ Organoen egiteko funtzionalak: Zenbat eta herritarrekiko harreman handiagoa izan EAEko Justizia Administrazioako langileek, orduan eta prestutasun handiagoa izango dute euskaraz egiteko. Izan ere, herritarren hizkuntza eskubideak organo judizial guztietan kontuan hartzekoak badira ere, hurbilagoetik sumatzen dira herri txikietan eta herritarrekiko harremanik handiena duten organoetan; beraz, zerbitzuotako langileek “feed-back” edo atzeraelikadura handiagoa edukirik, helburuei begirako jauzi handiagoak egiteko prest egongo dira.

Hipotesi horiek kontuan harturik, hobetze taldeak sortu ziren 2002ko uda aldera eta bulego judizial bakoitzak bere jardura plana burutu du 2002ko irailetik aurrera, ahalik eta modurik etekintsuenean eragiteko EAEko Justizia Administrazioan euskaren erabilera areagotzeko.

4

Organo judizialek mugatuta daukate beren esparru geografikoa, beren ezaugarrien arabera; hortaz, kontuan hartu dira esparru horietako euskaldunen dentsitateak.

3. Euskararen normalkuntza ibilbidea EAEko Justizia Administrazioan

3.1. Garapen historikoa

Justizia Administrazioko euskararen normalkuntza esparruei begira, 2001 urtera arte, hiru arlo landu ziren bereziki:

- Batetik, Justizia Administrazioko langileen euskara-ikastaroak antolatu ziren⁵, euskalduntzea eta alfabetatzea bideratzeko kolektibo horientzat.
- Bigarrenik, Justizia Administrazioan erabiltzen diren dokumentu judizialen euskarazko eredu normalizatuak sortzeari ekin zitzaion eta, horretarako, beren beregi sortu zen Euskara Batzordea⁶.
- Eta, hirugarrenik, itzulpen sistema indartu egin zen: Bizkaian eta Gipuzkoan launa itzultzaile daude, eta Araban bat. Guztira, beraz, bederatzi itzultzaile dira EAEko organo judizialetako itzulpen eta interpretaritza lanak bideratzen dituztenak.

5

Azken ikasturteko datuei erreparatuz gero:
Transferituta ez dauden langileak: epaile, magistratu, idazkari judizial eta fiskalen kidegoetan 130 langilek eskatu zuten euskara ikastaroetan parte hartzea.
Transferitutako langileak: ofizial, laguntzaile eta agente judizialen kidegoetan 500 langile egon dira liberatuta egun osoz edo egunero bi orduz euskara ikasteko.

6

Honako kide hauek osatzen dute Euskara Batzordea:
Epaile euskaldun bat
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundeko bi ordezkari
Bizkaiko Abokatuen Elkargoko bi kide
Gipuzkoako Abokatuen Elkargoko kideak: azken boladan ez dute batzordean parte hartu, baina jarraitzeko asmoa dutela jakinarazi dute.
Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko bi kide
Unean-unean zeregin horretarako kontratatuta dagoen itzulpen-enpresako bi ordezkari.
Justizia Administrazioko itzultzaile-interpretariak
Justizia Sailburuordetzako hizkuntza normalkuntza teknikariak
Batzordearen koordinatzailea (hizkuntza normalkuntza teknikarietako bat)
Euskara Batzordea duela bost bat urte sortu zen epaitegietako sistema informatikoan txertatzen diren idatz-eredu judizialak euskaraz normalizatzeko.

Batzordearen lan sistemari dagokionez, jurisdikzioka maizen erabiltzen diren agiri judizialak aukeratu ondoren, euskaratzera bidaltzen zaizkio zeregin horretarako eta deialdi publikoaren ondorioz hitzarmena egin zaion itzulpen-enpresari. Agiri horiek itzulita daudenean, batzordekide bakoitzari bidaltzen zaizkio, lehenengo bertsio horren gainean oharrak egin ditzan. Ondoren, bilera egiten da agiri horiek behin betikotzat jotzeko eta, azkenik, epaitegietako sistema informatikoan txertatzen dira.

Aurreko horiez gain, epe berriko esperientziei ekin aurretik, EAEko Justizia Administrazioan izan da esperientzia piloturik; izan ere, sei organo judizialek⁷ 1999an eta 2000n hartu zuten parte lehendabiziko esperientzietan.

Emaitzei dagokienez, maila desberdinekoak izan baziren ere, ondokoak izango lirateke esperientzia horiei buruzko zenbait xehetasun eta ezaugarri:

- ✓ Dinamizatzailerik gisa, Justizia Administrazioari itzultzaileak aritu ziren, beren ohiz kanpoko lanetan eta euren borondateari esker.
- ✓ Parte hartu zuten langileek egindako ahalegina handia izan bazen ere, planifikazio gabezia izan zen hutsunerik nabarmenena.
- ✓ Organo bakoitzaren unean uneko baliabideen arabera eta itzultzaileek emandako laguntzaren baitan burutu ziren ekintzak hautatutako organoetan. Egindakoari begira, gehienbat organo judizialeko karpetak jaso, itzuli eta karpeta-eredu berriak jarri ziren bulego judizialean, hau da, ele bietan, euskaraz eta gaztelaniaz.
- ✓ Ez zitzaion proiektuari, beraz, aparteko jarraipenik egin eta parte hartzaileen iritziak eta emaitzak jasotzen zituen ebaluaziorik ere ez zen burutu.

2001etik aurrera, ordea, aurreko aldiko arloak indartzen jarraitzeaz gain, bigarren aldi honetan, Justizia Administrazioan hizkuntza normalkuntzan aurrerakada handia ekarri duen ekimen garrantzitsua izan da, hain zuzen ere, EAEko Justizia Administrazioari hizkuntza normalkuntzarako neurriak finkatzen dituen Dekretua⁸, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren gidaritzaz sortua.

Horretarako, kontuan izan ziren EAEko gainerako administrazioetan onartutako normalkuntza-planak; baina, betiere Justizia Administrazioaren ezaugarriari erreparatuta, hots, beste batzuen artean, organo judizialen tipologia desberdinari, langileen profilei eta tokian tokiko bulego judizialen antolakuntzari.

7

Durango: Dekanotza, Lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegiak
Bilboko Lehen auzialdiko 8 zk.ko epaitegia
Bilboko Instrukzioko 6 zk.ko epaitegia
Azkoitiko bake-epaitegia
Bergarako Lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegiak
Donostiako Probintzia Auzitegia 3. sekzioa

8

Aip. oh. 2 zk.ko orri-oinean: 117/2001 DEKRETUA, ekainaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioari hizkuntza normalkuntzarako neurriak finkatzen dituenak. EHAA, 137. Zk., 2001/07/17.

3.2. Zenbait argibide

Baina, ezer baino lehen, argitu beharra dago 117/2001 Dekretuaren eragin esparrua mugatua dela, hau da, ez diela eragiten EAEko Justizia Administrazioako langile guztiei; izan ere, transferitutako langileei⁹ baino ez die eragiten (ofizial, laguntzaile eta agente judizialak).

Transferitu gabeko langileentzat (epaile, fiskal eta idazkari judizialak), kasuan kasuko hitzarmenek zehazten dute nola jokatu edo zein eratako hizkuntza-normalkuntza neurri hartu:

- Epaileen kasuan, Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiarekiko Hitzarmena dugu¹⁰. Hitzarmen honen helburuak dira karrera judizialeko kideek, kidegaiek eta bake-epaileek euskara ikas dezaten euskarri eta baliabide egokiak bideratzea, beren ohiko jardueran euskararen erabilera bultzatzea eta Justizian erabiltzen den euskara zabaltzen eta ontzen saiatzea.
- Fiskalen eta idazkari judizialen kasuan, 1997ko maiatzean sinatu zen Justizia Administrazioako Ikasketa Juridikoen Erakundearen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzeta-hitzarmena dugu, EAEko Fiskal eta Idazkari Judizialen prestakuntza arautzen duena. Prestakuntza horren barruan, besteak beste, euskalduntze eta alfabetatze ikastaroen eskaintza egiten da hainbat ikastaro-mota antolatuz.

3.3. Gaur egungo egoera

Euskal Autonomia Erkidegoan eta Nafarroako Foru Erkidegoan euskararen ofizialtasuna arautzen duten legeetan, justizi administrazioarekiko harremanetan nahi duten hizkuntza ofiziala erabiltzeko herritarrek duten eskubidea aipatzen bada ere, arlo horretako oinarritzko araua Espainiako Gorteen lege organiko bat da: Botere Judizialaren Lege Organikoa.

Botere Judizialaren ekainaren 1eko 6/1998 Lege Organikoak, azaroaren 9ko 16/1994 Lege organikoaren bidez aldatu zenak, jarduketa judizialeko hizkuntz ofizialtasunaren mugak zehazten ditu, eta printzipio bat ezartzen, alegia, jarduketa judizial guztietan, epaile, magistratu, fiskal, idazkari eta Epaitegi eta Auzitegiak gainerako funtzionarioek gaztelania erabiliko dutela, Estatuko hizkuntza ofiziala baita.

⁹

Eskualdaketetarako Bitariko Batzordeak 1996ko otsailaren 16an lortutako akordioa onartzen duen martxoaren 26ko 60/1996 Dekretuaren bitartez, Justizia Administrazioaren zerbitzura ziharduten langileak EAEko administrazioa pasatu ziren, otsailaren 16ko 249/1996 eta otsailaren 23ko 296/1996 Errege Dekretuetan adierazitako eran. Errege Dekretu horien bitartez, Justizia Administrazioaren zerbitzura diharduten ofizial, laguntzaile eta agenteen kidegoei eta auzitegi medikuen kidegoari buruzko araudi organikoak onartu ziren, hurrenez hurren.

¹⁰

1999ko otsailaren 18an sinatu zen Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzeta-hitzarmena, EAEko Justizia Administrazioaren zenbait arlotan euskararen erabilera normalizatzeko xedez.

Horretaz gain, Botere Judizialaren Lege Organikoak finkatzen du ere pertsona horiek Autonomia Erkidegoko berezko hizkuntza ofiziala erabili ahal izango dutela, baldin eta prozesuan parte hartzen duten alderdietako batek kontra egiten ez badu, eta horretarako, berezko hizkuntza ofiziala ez jakinik defentsa-gabezia egon daitekeela alegatzen badu.

Euskal Herriko Autonomi Estatutuaren arabera, euskaraz jakitea lehentasunezko merezimendua izango da Euskal Autonomia Erkidegoko lanpostuak betetzeko.

Bestalde, Botere Judizialaren Lege Organikoaren 341. artikulua arabera, berezko hizkuntza ofiziala jakitea merezimendu gisara baloratuko da berezko hizkuntza ofiziala duten autonomia erkidegoetako organo jurisdikzionaletan karrera judizialeko kideen lanpostuak betetzeko.

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzak Sailak euskara normalkuntzako neurriak finkatzen dituen 117/2001 Dekretua 2001eko ekainean onartu eta argitaratu zuen¹¹; baina, Espainiako Gobernuak helegitea aurkeztu zuen dekretu horren kontra, eta Auzitegi Konstituzionalak, 2002ko urtarrilean, bertan behera utzi zuen euskalduntzeko plangintza behin-behinekoz. 2002ko ekainean, Auzitegi Konstituzionalak, ordea, urtarrilean hartutako erabakia berrikusi zuen¹² eta, ondorioz, behin-behingo indarrik gabe utzitako Dekretua, indarrean utzi du berriro ere, indargabetzea kenduaz.

Horrela, bada, berriz ere indarrean dago euskararen normalkuntza plana, nahiz eta jakina den, aurrera eramateko martxan jarriko diren neurriek, Justizia Ministerioaren oniritzia jaso beharko dutela. Oniritzi hori, ordea, orain arte izandako jarraibidearen ildokoa bada behinik behin, badirudi luze jo lezakeenekoa izan daitekeela.

Hortaz, gaur egun lantzen ari garen hainbat ekimenek ere behar-beharrezkoa izango dute galbahe hori igarotzea. Balio beza, aurreko azalpen labur horrek, bada, adierazteko ez dagoela, beraz, Eusko Jaurlaritzaren esku “soil-soilik” EAEko Justizia Administrazioan euskararen normalkuntza neurriak zehaztu eta inplementatzearena.

¹¹

Aip. oh. 2 zk.ko orri-oinean: 117/2001 DEKRETUA, ekainaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioako hizkuntza normalkuntzarako neurriak finkatzen dituenak. EHAA, 137. Zk., 2001/07/17.

¹²

“...Copia del Auto dictado por el Pleno del Tribunal Constitucional en el conflicto positivo de competencia nº 5973-2001, promovido por el Gobierno de la Nación, frente a los capítulos II, III, IV y V y Disposiciones Adicionales 1ª, 2ª y 3ª del Decreto del Gobierno Vasco 117/2001, de 26 de junio, de medidas para la normalización lingüística de la Administración de Justicia de la CAPV...”

En Madrid a 15 de junio de 2002

Acuerda:

...Levantar la suspensión de los capítulos II, III, IV y V y Disposiciones Adicionales 1º, 2º y 3º del Decreto del Gobierno Vasco 117/2001, de 26 de junio, de medidas para la normalización lingüística de la Ad. de Justicia de la CAPV
Madrid a 5 de junio de 2002...”

4. EAEko Justizia Administrazioako esperientzia pilotuak

EAEko Justizia Administrazioan azken aldi honetan martxan jarritako euskararen erabilera bultzatzeko esperientzia pilotuek, dena den, zenbait ezaugarri izan dituzte. Horietako batzuk, labur-labur bada ere, ondoko lerroetan doaz.

4.1. Aurrekariak

Euskararen erabilera sustatzeko esperientzia pilotuak ondoko lege eta akordioetan oinarritzen dira:

- Batetik, 1999ko otsailaren 18ko Botere Judizialaren Kontseilu Nagusiaren eta Eusko Jaurlaritzaren arteko Lankidetzaren Hitzarmenean. Hitzarmen horren helburuetako bat Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioako zenbait alorretan euskararen erabilera normalizatzeari buruzkoa da.
- Bestetik, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailaren eta Sindikatuen arteko bigarren Akordioan¹³. Akordio hori Justizia Zerbitzu Publikoa modernizatzeari buruzkoa eta Justizia Administrazioako langileen lan-baldintzetan modernizatzeko izango dituen ondorioei buruzkoa da.
- Eta, beren beregi, 117/2001 Dekretuan¹⁴, EAEko Justizia Administrazioarako euskara normalkuntza neurriak finkatzen dituenekoan.

4.2. Esperientzia pilotuen helburuak

Esperientzia pilotuetako talde bakoitzak bere helburuak jarri baditu ere, esperientzia pilotuen helburu nagusia, bada, bulego judizialean euskararen erabilera bultzatzea eta bermatzea da.

Dena den, helburu hori ez zaio lotu soil-soilik esku artean aztergai den proiektuaren iraupenari eta, horrez gain, erabilera-mailari; hortaz, euskararen erabilera proiektuan zehar lortutako konpromisoei eusteko beharrezkoak diren jarduerak jorratzeko asmoa dago.

Kontuan izanik aurrekarietan aipatutako lege babesa eta, bestalde, esperientzia pilotuak hasi orduan izan diren erakundeen arteko akordio mailak, euskararen erabilera bultzatzen duten jarrerak areagotzean izan da gakorik nabarmenena; beraz, Justizia Administrazioako langileen

¹³

Abenduaren 26ko 309/2000 Dekretuaren Eranskina.

¹⁴

Aip. oh. 2 zk.ko orri-oinan: 117/2001 DEKRETUA, ekainaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administrazioako hizkuntza normalkuntzarako neurriak finkatzen dituenak. EHAA, 137. Zk., 2001/07/17.

partaidetza ezinbestekoa suertatzen da eta, bide batez, prestakuntza egokia eta motibazioa sustatzea behar-beharrezkoa da.

Beste alde batetik, helburu zehatzak hiru esparru nagusitan banatu dira:

- ⇒ Epaitegien irudian: Epaitegietan bertan euskararen presentzia areagotzea (adib.: errotulazioan, paisaia linguistikoan, gutunazaletan, eskutitzen karatuletan, faxetan...).
- ⇒ Idatzizko produkzioan: Idatzizko dokumentuetan euskararen erabilera areagotzea, bereziki, herritarrari zuzentzen direnetan, adib.: jakinarazpenak, epatzeak, etab. (administratuarekiko harremanei dagozkienak).
- ⇒ Ahozko harremanetan: Ahozko harremanetan euskararen erabilera bultzatzea (adib.: telefonoz esaten den lehenengo hitza edota herritarrari egiten zaion harrera, etab.)

4.3. Esperientzia Pilotuen irizpideak

1999 eta 2000ko esperientzia pilotuak amaitutakoan, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailburuordetzako Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritza, esperientziek izaniko arrakasta apalaz kezkaturik, berriz ere hasi zen euskararen erabilera sustatzeko jardueri buruz hausnartzen.

Horiek horrela, organoen egoera soziolinguistikoaren gaineko azterketa ugari eta aurreko esperientzietatik ikasitakoari erreparatu ondoren, esperientzia pilotuak berriro abian jartzeko diseinua lantzeari ekin zitzaion.

Justizia Administrazioko organoak proposatzeko irizpideak aztertu eta zehaztu ondoren, kontuan izanik giza baliabideen aldetiko mugak (4 dinamizatzailer), 23 organo judizial aukeratu dira 2002ko deialdian.

Irizpideak, nagusiki, 4 izan dira: organo judizialen esparru soziolinguistikoa, organo judizialetakoa langile euskaldunen dentsitatea, herritarrekiko harremanak eta inplikaturakoen onespina.

Dena den, erabateko garrantzia izan du bulego judizialetakoa egoera demolinguistikoak; izan ere, eremurik euskaldunenak diren askotan ezin izan da hobetze talderik sortu arrazoi horrexegatik, funtzionario euskaldunak ez zegoelako, alegia.

Beraz, esperientzia pilotuak martxan jartzeari begira, lehenik eta behin, funtzionario euskaldunen kopuru nahikoa izatea eta berauek esperientzia pilotuekiko adierazitako onespina izan dira lehentasunezko irizpideak.

Esparru soziolinguistikoa, organo judizialen eragin eremua oinarritzat hartuta	Organo judizialen egoera demolinguistikoa	Organo judizialen egitekoak eta herritarrekiko harremana	Organo judizialeko partaideen onespena
2 talde nagusi: • Esparru euskaldunenak: $DI \geq 80-100$ • Euskaldunen dentsitate handiko esparruak: $DI \geq 55-79,99$	• HABEren 6. eta 7. urratsetatik gorako langile kopuruak eta ehunekoak	Ondoko hurrenkeraren arabera: • Bake-epaitegiak • Erregistro Zibilak • Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko epaitegiak • Probintzia Auzitegiak • Auzitegi Nagusia	• Agintedunak (magistratu, epaile, idazkari judizial, fiskal eta bake-epaile) • Organo judizialeko langileak (ofizial, laguntzaile eta agente)

Taula-oharrak:

- DI : derrigortasun indizea = $(\text{Euskaldunak} + (\text{Ia Euskaldunak}/2))$

Lau irizpide horiek, dena den, arrazoi jakin batzuei erantzuten diete:

✓ Esparru soziolinguistikoa:

Esparru soziolinguistikoa diogunean, organoaren eraginpeko esparruan dagoen euskaldun dentsitateaz ari gara. Izan ere, badago desberdintasunik eta alderik euskarazko eskariari dagokionez eremu euskaldunen eta hain euskaldunak ez diren artean; eta, horri, neurri batean bederen, erantzun egin nahi izan zaio EAEko Justizia Administrazioako euskararen erabilera proiektua gauzatzen hasi zen une beretik.

Hori dela eta, erabilitako iturburua, 86/1997 Dekretuari¹⁵ jarraiki, derrigortasun indizea (Euskaldunak + (1a Euskaldunak/2)) izan da eta, horretarako, Euskal Autonomia Elkarteko biztanleen euskararen ezagutzari buruz Erroldan edo Biztanleria eta Etxebizitza Estatistikan jasotako informaziora jo dugu, 1996koa¹⁶, alegia.

Eskariari erantzun nahian, beraz, esparrurik euskaldunenak identifikatu dira:

- Udalerrri mailan, besteak beste, Gaztelu, Elduain, Berastegi, Ataun...
- Eskualdeka, Markina-Ondarroa, Gernika-Bermeo, Urola-Kostaldea, Tolosaldea, etab.
- Eta, azkenik, probintzia mailan, Gipuzkoa, Bizkaia eta Araba, hurrenez hurren.

Baina, lehenik eta behin, esparru soziolinguistikoak izan dezakeen eraginaz gain, kontuan hartu beharrekoa izan da tokian tokiko baldintza objektiboak zein diren, hau da, zerbitzua eskaintzeko zer eta nolako baliabideak dauden eta nolako prestutasuna dagoen horretarako.

Hortaz, funtzionario euskaldunak izatea eta prest egotea esperientzia pilotuetan parte hartzeko izan da lehenetsi dena.

✓ **Organo judizialen egoera demolinguistikoa:**

Justizia Administrazioako organoetako euskaldun kopurua lehenetsi da proiektuan parte hartzeko funtzionarioak aukeratu orduan eta, horretarako, "euskara nahikoa" dakiten funtzionarioak izatea, hots, gutxieneko euskara-maila izatea.

Esperientzi pilotu hauek euskaraz burutu ahal izateko, HABEren 6./7¹⁷. urratsa hartu da gutxienezkotzat. Horrela jokatur, bermatu egin daiteke euskaraz lan egingo dela taldeotan, mailakatzea eta progresibotasuna bideratuz, bai ikuspegi indibidualetik bai eta taldeka ere organo judizial barruan; baina, betiere euskaraz abiatuz esperientzia pilotuak.

Hau da, euskaraz lan egingo da hobetze taldeotan eta partaide bakoitzaren arabera helburuak markatu ahal izango dira, nork bere posibilitateetatik izango dituela mugarri.

¹⁵

86/1997 DEKRETUA, apirilaren 15ekoa, Euskal Autonomia Elkarteko herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duena. EHAA, 72. Zk., 1997/04/17.

¹⁶

1. eranskinean, hau da, "EAEko udalerrien derrigortasun indizeak (1996)" izenekoan dago udalerriko informazioa.

¹⁷

Eusko Jaurlaritzaren Justizia Sailburuordetzako datu-baseetako datuak erabiliz.

✓ Organo judizialen egiteko funtzionalak eta herritarrekiko daukaten harreman maila:

- Alde batetik, organo judizial bakoitzaren izaera¹⁸ aztertu eta zehaztu da, bai eta herritarrekiko duten harremana ere.
- Halaber, kontuan hartu da ere harreman kopurua eta harreman horien nolakotasuna, ahozkoan zein idatzizkoan.

Organo horietako egitekoei erreparatuz gero, ondoriozta daitekeena zera da: zenbat eta maila beheragokoa izan organo judiziala (bake-epaitegiak, erregistroak...), orduan eta herritarrekiko harreman maila¹⁹ altuagoa dutela Justizia Administrazioeko egiturek.

Horrela, beraz, herritarrekiko harremanik handiena bake-epaitegiek, lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegiek, Probintzia Auzitegiak (salak) eta Auzitegi Nagusiko salek izango lukete, hurrenez hurren.

¹⁸

Begiratu 2. eranskina, EAE-ko organo judizialen banaketa eta egitekoei buruzkoa.

¹⁹

Epaitegi eta auzitegietako antolamenduak bulego baten egitura du, bulego pribatu baten antzeko egitura, alegia. Hortaz, bulego horiei Bulego Judizial deitzen zaie. Bulego judizialetan pertsonaleko buru bat egoten da: idazkari judiziala. Bestalde, administrarien eta laguntzaileen hainbat eskala egoten dira, eskala horietako bakoitzak eginkizun zehatz batzuk atxikita dituela.

Honako hauek dira bulego judizialetan izaten diren partaideak eta, oro har, berauoi dagozkien eginkizunak.

Kargua	Eskumenak
Epailea,	
magistratua	Justizia administratzen du epaien eta bestelako ebazpenen bidez. Epaitegi edo Salako edo Auzitegiko ikuskatzaile goren da.
lehendakaria	

	Idazkari judiziala: Fede publiko judiziala egikaritzen du agente izaerarekin, autonomiaz eta independentziaz; EAEko Justizia Administrazioetan zuzendaritzako eta prozesu-ordenazioko funtzioak betetzen ditu.
Idazkari judiziala	EAEko Justizia Administrazioen zuzendaritza osoa gauzatzen du epaile edo magistratuaren zuzendaritzapean, lana banatu eta zeregin espezifikoak esleitzea, eta baita horiek benetan eta egokiro betetzen direla kontrolatu eta zaintzea ere

Ofiziala	Arazoak izapidetzen ditu, idazkarien ordezkari jarduten du eta komunikazio-egintzak gauzatzen ditu.
Laguntzailea	Bilakaera orokorrean laguntzen du, espediente eta idazkiak erregistratzen ditu, ebazpenak transkribatu, etab.
Agentea	Aretoa zaindu eta zainarazten du, enbargoak betearazten ditu, posta gorde eta garraiatzen du, jendeari arreta ematen dio, etab.

Justizia Administrazioeko langileriarekin hautaketa oposizio bidezkoa da eta hautespen probak gainditzeko dituztenak estatu osorako habilitatutako karrerako funtzionario dira, "habilitazio nazionala" dutenak, alegia.

- ✓ Organo judizialeko agintedunen aldetiko euskararen ezagutza eta proiektuarekiko onespina eta inplikazioa²⁰:

Aurreko baldintza guztiak objektiboak badira ere, behar-beharrezkoa da baldintza guztiak bete arren, partaide izan daitezkeenek beren onspina ematea proiektuan parte hartzeari, are eta gehiago baldin eta bulego judizialeko agintedunak badira (magistratu, epaile, idazkari judizial...); betiere, parte hartzea borondatezkoa eta librea dela jakinaraziz eta, aldi berean, sortutako kezkei eta zalantzei erantzunak ematen ahaleginduz.

Irizpideak aztertu ondoren, batez ere, baldintzak betetzen zituaztenetik, zonalde euskalduneneko organo judizialak aukeratu dira, euskaldun kopuru handikoak eta herritarrei begira lan egiten dutenak.

Aurreko horiek izan badira ere zehaztutako irizpide nagusiak, bere garaian egindako ahaleginari jarraipena emateko asmoz, aurreko esperientzietan parte hartu zuten sei organoak²¹ ere kontuan hartu ziren proposamena lantzerakoan.

Hortaz, alde batetik, irizpide berriak erabiliz sortutako taldeak izango dira 2002ko udatik aurrerako esperientzia pilotuetan eta, beste aldetik, ildo berrirako erreperatu diren aurreko esperientzietan izandako organo judizialak.

Guztira, beraz, hiru barruti judizialeko (Durango, Tolosa eta Bergara) organo guztiak eta, halaber, gainontzeko 20 organo judizial. Horrela, bada, 24 talde osatu diren arren esperientzia pilotu hauetarako (Durango, talde bi), 46 organo judizialean eragin da:

- ❑ 25 bake-epaitegitan, bake-epaitegi bakan eta udal elkarteetako bidez: Lekeitio, Ondarroa, Igorre (udal elkarte), Zamudio (udal elkarte), Azkoitia, Ibarra (udal elkarte), Lazkao (udal elkarte) eta Legazpi.
- ❑ Informazio eta jakinarazpenetarako 5 organo judizialean:
 - Bilbon: Barroetako Informazioa, Buenos Airesko Informazioa, eta Bisita Gidatuak.
 - Donostian: Informazio Zerbitzua eta Izapideen eta Betearazpenen bulegoa
- ❑ Durango, Tolosa eta Bergarako barruti judizial hiruretako organo judizial guztietan (15).
- ❑ Lehen Auzialdiko 2 epaitegitan: Bilboko 8 zk.koa eta Donostiako 4 zk.koa.
- ❑ Instrukzioko 2 epaitegitan: Bilboko 6 zk.koa eta Donostiako 3 zk.koa
- ❑ Probintzia Auzitegiko 2 sekziotan: Donostiako 1. eta 3. Sekzioak.

²⁰

Robert Winter-en hitzetan (EHUko kalitate katedrako zuzendaria), kalitate prozesuek nekez egingo dute aurrera zuzendaritzaren benetako konpromiso eta buruzagitza barik.

²¹

Durango: Dekanotza, Lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegiak
Bilboko Lehen auzialdiko 8 zk.ko epaitegia
Bilboko Instrukzioko 6 zk.ko epaitegia
Azkoitiko bake-epaitegia
Bergarako Lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegiak
Donostiako Probintzia Auzitegia 3. sekzioa

- Auzitegi Nagusiko sala batean: Zibil eta Zigor Arloko Sala.

Baina eta zein dira organo horien jarduerak eta eragin eremuak? Hau da, zein udalerri, eskualde, zonalde edota herrialderi eskaintzen diote Justizia Administrazioaren zerbitzua?

Ondoko taulan azaltzen dira esparru horiek.

ORGANO JUDIZIALAK	ERAGIN ESPARRUAK
Lekeitioko bake-epaitegia	Lekeitio
Ondarroako bake-epaitegia	Ondarroa
Igorreko bake-epaitegia (Udal elkarte)	Lemoa, Bedia, Igorre, Arantzazu, Artea, Zeanuri, Dima, Ubidea eta Areatza.
Zamudioko bake-epaitegia (Udal elkarte)	Zamudio, Lezama eta Larrabetzu
Azkoitiko bake-epaitegia	Azkoitia
Ibarrako bake-epaitegia (Udal elkarte)	Ibarra, Gaztelu, Berrobi, Berastegi eta Alkiza
Lazkaoko bake-epaitegia (Udal elkarte)	Lazkao, Olaberria, Ataun eta Idiazabal
Legazpiko bake-epaitegia	Legazpi
Barroeta Informazioa-Dekanotza-Bilbo	Oro har, EAE; baina, batez ere, Bizkaiko LH*
Buenos Aires Informazioa-Dekanotza-Bilbo	Oro har, EAE; baina, batez ere, Bizkaiko LH*
Bisita Gidatuak-Dekanotza-Bilbo	Oro har, EAE; baina, batez ere, Bizkaiko LH*
Informazio Zerbitzu Orokorra-Dekanotza-Donostia	Gipuzkoako LH*
Zigor Arloko Izapideen eta Beteazpenen bulego orokorra	Gipuzkoako LH*
Durango: organo guztiak: Dekanotza, Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Epaitegiak (1, 2, 3 eta 4 zk.)	Durango barruti judiziala: → Bedia, Lemoa, Igorre, Arantzazu, Artea, Areatza, Zeanuri, Dima, Ubidea, Otxandio, Zornotza, Iurreta, Durango, Izurtza, Mañaria, Abadiño, Atxondo, Garai, Berriz, Mallabia, Ermua, Zaldibar eta Elorrio.

ORGANO JUDIZIALAK	ERAGIN ESPARRUAK
Tolosako epaitegi guztiak	Tolosako barruti judiziala: → Iparraldera: Zizurkil, Aduna, Andoain eta Elduain. → Hegoaldera: Zegama eta Araba eta Gipuzkoaren arteko partzoneria. → Ekialdera: Nafarroako muga. → Mendebaldera: Ezkio-Itsaso, Gabiria, Mutiloa...
Bergara: organo guztiak: Dekanotza, Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko Epaitegiak (1, 2, 3 eta 4 zk.)	Bergarako barruti judiziala: → Elgeta, Bergara, Antzuola, Urretxu, Zumarraga, Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza, Leintz-Gatzaga, Oñati eta Legazpi.
Bilboko Lehen Auzialdiko 8 zk.ko Epaitegia	Bizkaiko LH*
Donostiako Lehen Auzialdiko 4 zk.ko Epaitegia (Erregistro Zibila)	Gipuzkoako LH*
Bilboko Instrukzioko 6zk.ko Epaitegia	Bizkaiko LH*
Donostiako Instrukzioko 3zk.ko Epaitegia	Gipuzkoako LH*
Donostiako Probintzia Auzitegiko 1. Sekzioa	Gipuzkoako LH*
Donostiako Probintzia Auzitegiko 3. Sekzioa	Gipuzkoako LH*
Auzitegi Nagusia- Zibileko eta Zigor arloko Sala	EAE Euskal Autonomia Erkidegoa

Taula-oharrak:

- LH*: Lurralde Historikoa
- EAE: Euskal Autonomia Erkidegoa

Esperientzia pilotuak abian jartzeko 2002ko maiatzean eta ekainean hasierako aurkezpenak egin ondoren, ondokoak izan ziren proposatu eta parte hartzea eskaini zitzaien organo judizialak eta pertsona kopuruak:

Proposatutako organo judizial nagusiak, guztira	BIZKAIA	GIPUZKOA
23	11	12
Bake-epaitegiak	4	4
Gainerako organo judizialak	7	8

Proposatutako pertsonak	BIZKAIA	GIPUZKOA
114	42	72
Bake-epaitegiak	10	9
Gainerako organo judizialak	32	63

Parte hartzeko proposatutako organo guztiek eman zuten baiezkoa. Funtzionarioei dagokienez, ordea, izan zen parte hartu nahi ez edota ezin izan zuenik.

Proposatutako pertsonak	Parte hartu duten pertsonak	BIZKAIA		GIPUZKOA	
		Proposatutakoak	Parte hartutakoak	Proposatutakoak	Parte hartutakoak
Kopurutan: 114	94	42	40	72	54
Ehunekotan: %100	%82,45	%100	%95,23	%100	%75

Hasieran parte hartu zutenen emaitzak ikusita, esperientzia pilotuak abian jartzeak oso harrera ona izan zuen langile guztien artean, zertxobait handiagoa Bizkaian Gipuzkoan baino. Dena dela, partaidetza kopurua guztira proposatu denaren ehuneko 80tik gorakoa izan da.

Hobekuntza taldeak	BIZKAIA	GIPUZKOA
24	12	12
Bake-epaitegiak	4	4
Gainerako organoak	8 (Durangon, talde 2)	8

Behin esperientziok abian jarri eta gero, hobekuntza taldeak sortu ziren organo judizial desberdinetan eta, ondoren, horietako bakoitzean, jarduera plana osatzeari ekin zitzaion. Langileek eurek beren organoetarako osaturiko jarduera plan hauek Jarraipen batzordeari aurkeztu eta onetsi ondoren, ekintza zehatzak martxan jartzeari ekin zitzaion 2002ko irailean.

Esperientzia pilotuetako gaur egungo egoerari erreparatuz gero, ostera, ondokoak dira partaidetzari buruzko datuak:

Hasierako partaideak	Egungo partaideak	BIZKAIA		GIPUZKOA	
		Hasierako partaideak	Egungo partaideak	Hasierako partaideak	Egungo partaideak
94	99	40	43	54	56
%82,45	%86,84	%95,23	%102,38	%75	%77,77
Hobekuntza taldeak		BIZKAIA		GIPUZKOA	
26		13		13	
Bake-epaitegiak		4		4	
Gainerako organoak		9		9	

Partaidetzak gora egin du, gehienbat, Justizia Administrazioako azken lekualdatze lehiaketa burutu denean plaza hutsak betetzeko hizkuntza irizpideak ezarri direlako.

Hobekuntza taldeen kopuru aldaketari dagokionez, ostera, Justizia Administrazioan izandako zerbitzu berrien sorrerari eta dinamizatzailer taldeak egindako ahalegin bereziari zor zaizkio.

Bestalde, zenbait organo judizialetan esperientzi pilotuak abian jarri ondoren, organo judizial zehatz bakoitzak eskaintzen duen zerbitzuaren arabera, egoki iritzi zaio hobekuntza talde desberdinak bereizteari. Hala egin da, esate baterako, Durangon eta Tolosan.

4.4. Esperientzia pilotuetan erabilitako metodologia

Esperientzia pilotu hauen helburua EAEko Justizia Administrazioan euskararen erabilera bermatzea eta gehitzea izan da, arian-arian,

- ⇒ alde batetik, herritarrek Justizia Administrazioarekin dituzten harremanetan, neurri batean bederen, berauen eskubideak bermatu ahal izateko.
- ⇒ eta, bestetik, euskaraz jardunez, funtzionarioek ere beren euskara gaitasuna sendotu eta gehitzeko.

Metodologiari dagokionez, talde²² txikietatik hasita, organo judizialeetan euskararen presentzia areagotu egin nahi izan da eta, horretarako, kalitate taldeen erreferentzia hartu dugu. Izan ere, metodologia parte hartzaileari esker, langileak eurak proiektu partekatu batean partaide direla eta beren helburuen kudeatzaile eta zuzen zuzeneko egile diren neurrian, organo judizialeetako eragile ere badira.

Horrez gain, derrigortasunik ezar ez daitekeenez gero, modu bakarra izan da partaidetza zabaleko taldeak osatu ahal izateko.

Gure kasuan, iturburu hori erabilita, organo judizialeetako funtzionarioz osatutako talde txikiak izango lirateke, bulego judizial bakoitzean euskararen erabilerak duen egoera eta problematika zehazteko, aztertze eta soluziobideak eta hobekuntzak proposatzeko, euskara erabiliz eta, batez ere, beren organoetako egitekoetarako euskara egokitua erabiliz, ahoz zein idatziz. Parte hartzeak, beraz, berekin dakar trebakuntzan aurrera egitea.

Talde hauek, bestalde, irekiak, partehartzaileak eta borondatezkoak dira eta, organo judizialeetako buruen onespenezkin batera, laguntza eta motibazioa ere izango dituzte prozesu osoan.

Talde horiek beti egon dira zabalik gainontzeko funtzionarioek ere euren ekarpenak egin ahal izateko, adibiderik garbiena organo bat baino gehiagotan izandako harrera positiboa partaide izan ez direnengan ere. Dena den, taldeotan parte hartzeko baldintzak ondokoak izan dira:

- Gutxienezko euskara maila: HABEren 6.-7. urratsetik gora.
- Borondatezko parte hartzea.
- Talde lanak eskatzen dituen baldintzak betetzeko konpromisoa hartzea: ordutegiak betetzea, adostutako erabakiak, aginduak eta hitza betetzea...

Izan ere, kalitate zirkuluen oinarrien artean²³, badira kontzeptuari berari begira zenbait oinarri-oinarrizko ezaugarri:

- Erakundeetan egiten diren lanei buruz informazio bila joanez gero, inork ezer jakitekotan, hoberena lan hori egiten duenarengana jotzea izaten da.
- Langileari, maila pertsonalean zein profesionalean, errespetu osoa zor zaio eta, beraz, izan litzakeen ekarpenek arretarik handiena eskatzen dute.

²²

Guztira, 24 talde dira, Bizkaian eta Gipuzkoan banatuta. Araban, bestalde, hasieran jarritako baldintzak betetzen zituenez ezean, ez da talderik sortu oraingoz. Bulego judizialeetako ofizial, laguntzaile eta agentez osatzen dira taldeok, kasuan kasu, idazkari judizialeetako batzuk parte hartu badute ere.

²³

PALOM IZQUIERDO, Francisco Javier (1987). Círculos de calidad: Teoría y práctica. Marcombo Boixareu Editores. Barcelona.37. orr.

- Talde lanak norbanakoen gaitasunak osatu eta potentziatu egiten ditu eta, aldi berean, modu eta ingurumari etekintsu eta erosoagoan lan egiteaz gain, enpresaren beraren helburuak ere irisgarriago edota lorgarriagoak bilakatzen dira.

Bestalde, enpresetan erabiltzen den hobekuntza metodologia²⁴ ere izan da kontuan. Langileengan ohitura aldaketa bat sortu nahi badugu, prozesuaren parte bilakatu behar ditugu langile horiek, horrelaxe lortzen baita eurak inplikatzeara eta motibatzea. Azken batean, gure kasuan, hau da, EAEko Justizia Administrazioarenean,

- ✓ euskara erabiltzea izango litzateke, batez ere zerbitzu hizkuntza gisa bermatuz
- ✓ eta, baldintza egokiak ematen diren tokietan, baita lan hizkuntza moduan ere.

Horrela, bada, Justizia Administrazioko langilea bera bada, azken finean, hobekien ezagutzen duena zer egiten duen, nola egiten duen eta zertarako egiten duen bere lana. Beraz, langile horien zerbitzua hobetuz, Justizia Administraziotik eskaintzen den zerbitzua bera ere hobetuko da eta, neurri batean, herritarren hizkuntza eskubideak ere errespetuzko maila izango dute.

4.5. Esperientzia pilotuetako parte hartzaileak

Honako hauek hartzen dute parte bulego judizialetako euskararen esperientzia pilotuen garapenean:

- Dinamizatzaileak: lan-taldeak gidatzeko ardura dute beren gain eta organoetako arduradunekin komunikazio kanala mantentzeaz arduratzen dira. Une honetan, lau dinamizatzaile ari dira hobetze taldeekin, bi Bizkaian eta bi Gipuzkoan.
- Koordinatzaileak: Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzaren eta dinamizatzaileen arteko komunikazio arina bermatzeko ardura du.
- Langileak (hobetze taldeak): Bulego judizial etako ofizial, laguntzaile eta agentez osatzen dira hobetze-taldeak. Parte hartzea borondatezkoa dute eta dinamizatzaileekin batera egiten diren saioetan helburuak zehazten laguntzeaz gainera, horiek lortzeko gauzatu beharreko ekintzak adosten dituzte eta, aldi berean, ekintza horiek aurrera eramateko behar diren urratsak emateko konpromisoak hartzen dituzte. Gaur egun, 99 funtzionario ari dira talde horietan.
- Itzultzaileak: Dinamizatzaileei laguntza ematen diete arlo linguistikoan.

²⁴

INTXAUSTI, Kike (1998). Metodología de los grupos de mejora ("Sareka" proiektua). In: "Autoevaluación y Planes de Mejora. La experiencia del IEFPS de Usurbil." Organización y Gestión Educativa. 4 zk. Donostia-San Sebastián.
"SAREKA, kalitatea LH publikoan" proiektuaren bulegoa Usurbilgo Goi Mailako Lanbide Heziketako Institutuan dago eta 97-98 ikasturtean eratu zen, hau da, hitzarmena indarrean zegoen bigarren urtean.

- Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak: Informazioa ematen die esperientzia pilotuetan diren organoetako arduradunei, erabilera proiektua behar bezala burutzeko beharrezko gerta litezkeen baliabideak eskaintzen ditu eta proiektuaren garapen zuzena bermatzen du.
- Magistratu, epaile eta idazkari judizialek: 117/2001 Dekretuaren 20. artikuluko 3. azpiatalean jasotzen denaren arabera, onespina ematen diote esperientzia pilotuak martxan jartzeari, baita, egokitzen joz gero, langileek proposaturiko jardueri ere.
- Euskara batzordeak: euskararen erabilera proiektuan inplikaturiko organo judizialen behar premiazkoen berri dauka eta normalizaturiko dokumentuak ahalik eta azkarren erabiltzen hasteko lan egiten du²⁵.
- Jarraipen batzordeak: Bulego judizialetan diren euskararen erabilera proiektuen jarraipena egiten duen batzordea da, bai eta izan litezkeen aldaketetarako aholku emaile ere. Ondokoak dira parte hartzaileak:
 - ✓ Dinamizatzailen koordinatzailea
 - ✓ Itzultzaile bat
 - ✓ Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzako kide bat
 - ✓ Bi dinamizatzailerik (lurralde historiko bakoitzeko bana)
 - ✓ Gobernu-Salako ordezkari bat, Auzitegi Gorenak izendatua.
 - ✓ Sindikatuetako ordezkari bat.


Esperientzia pilotuetako taldeetan jarritako helburuak, bestalde, nor bere baldintzen eta konpromiso mailaren arabera izan dira, hobetze taldeen metodologiari jarraiki.

4.6. Prozesuaren zehaztapena eta faseak

Hobetze taldeak sortu dira aukeratutako organoetan eta, talde bakoitzak berak erabakitakotik egin badu ere, prozesuaren diseinua, oro har ondokoa izan da.

²⁵

Begira dokumentuaren amaierako 3. eranskinean, "Hobetze taldeen metodologia" izenekoan.




Aurreko eskema horrek lineala eta hasieratik amaierarakoa dirudien arren, norabide nagusia markatzen du soil-soilik; izan ere, prozesuaren faserik gehienetan, egindakoaren edota egin beharrekoaren inguruko hausnarketak ekarri ditu, batez ere, partaidetzatik sortutako iradokizunek beren aldaketak sortu dituztelako talde bat baino gehiagotan.

Hori dela eta, hasierako jarduera planetan zehaztutakoetatik formulazio berriak ere izan dira (euskalkian sakontzeko saioak...) .

SHEWHARTek²⁶ etengabeko hobekuntza lau aldiko prozesu batean zehaztu zuen:

- PDCA (Plan-Do-Check-Act), hau da, planifikatzea, egikaritzea, testatzea eta doitzea.



Gure kasuan, bulego judizialtako esperientzia pilotuak inplementatzeko prozesua hobetzeko, beraz, PDCA erabili da, baina, era honetan:

- **Planifikatu** egin dira hobetzekoak diren helburuak bai eta nola lortu behar diren ere.
- **Egikaritu** dira prozesuak hobetzeko jarduerak.
- **Testatu** dira hobetzeko proposatutako jarduerak
- **Eguneratu**, doitu eta txertatu egin dira egituran hobetutakoak.

²⁶

SHEWART, Walter (2000). La calidad total. In: [http://www.euskalit.net/calidad total/folleto5.pdf](http://www.euskalit.net/calidad%20total/folleto5.pdf). 9. Orr.

Langileen parte hartzea bultzatu dugu prozesuaren fase guztietan: diagnosian, helburuen proposamenean, ekintzen inplementazioan eta ebaluazioan.

Talde horietan, alde batetik, nork bere organoan dituen arazoak aztertu eta zehaztu dira EAEko Justizia Administrazioak eskaini beharko lukeen zerbitzu elebidunaz eta, bestetik, irtenbiderik egokienak proposatu dira, bai organo bakoitzeko agintedunen aurrean bai eta esperientzia pilotu hauetarako beren beregi sortutako Jarraipen batzordean ere.

Baina, lehenik eta behin, euskararen erabilera areagotzeko esperientzia pilotu hauetan zein organotan lan egingo den zehaztu ondoren, organo horietako bakoitzean aztertu dena ondokoa izan da:

- ⇒ egiten duten lanaren azterketa funtzionala egitea: besteak beste, kidegoei dagokienez, oso nabarmena da banaketa funtzionala: agenteek herritarrekiko lehen harremana bideratzen dute eta laguntzaileek eta ofizialek, oster, mostradoretik barrurako lanari ekiten diote.
- ⇒ eta, halaber, erabilitako dokumentazioa eta ahozko harremanak aztertu dira: erabilitako agiri guztien bilketa-lana egin da eta euskaraz jartzeko zailtasun-mailak aztertu dira, zorizko hustuketak egin ondoren. Horrez gain, organo bakoitzean gauzatzen diren ahozko harremanei buruzko informazioa jaso da.

Bileren maiztasunari dagokionez, esperientzia pilotuak martxan jarri direnean, hau da epaileek, magistratuek eta idazkari judizialek aurretiaz onetsi duten tokietan eta 2002ko ekainetik aurrera, dinamizatzailerak astean behin edota aste birik behin ordubeteko edo ordu eta erdiko saioak izan dituzte.

Partehartzaileek, saio horietan izandako elkarlanaz baliatuz, beren lana euskaraz burutzeko prestakuntza jaso ez ezik, ezarritako helburuak eskuragarriago ere bizi izan dituzte.

Orain arte azaldutakotik zertxobait aldentzen den eredia bake-epaitegiarena da. Bake-epaitegiaren baldintzak bestelakoak direnez gero (hurbilagoko zerbitzua, ezagunagoa...), egoera soziolinguistikoak bertako langileei euskaraz lan egiteko aukera eskaini die eta, beraz, dinamizazio-saioen maiztasuna kasu bakoitzean aztertu bada ere, organo nagusietan baino bilera gutxiago izan dira.

Dena dela, organo nagusietan zein txikietan, bai saioetan izandako prestakuntza bai eta talde bakoitzak zehaztutako egitekoei buruzko lanak laneko orduetan izan dira beti.

Prozesuaren jarraipenari dagokionez, bestalde, derrigorrezkoa izan da esperientzia hauek martxan jarri ditugun organoetan euskararen erabilera eman diren aldaketak zehaztea eta jasotzea.

Horrenbestez, ahozko nahiz idatzizko euskararen erabilera neurtzeko, bulego judizial bakoitzean adostutako jarduera planaren arabera adierazle zehatzak²⁷ aplikatu dira eta jarraipena egin da. Jarraipen horrek hainbat informazio eman digu, besteak beste, ezarritako helburu zehatzak egokiak izan diren, edota giza baliabideak eta baliabide materialak behar adinako neurrian ezarri

²⁷

Adibide gisa, begiratu 5. eranskinen "Jarduera Plana". Bestalde, kontrol adierazle horiek euskararen normalizazioaren 5 arlo nagusi hauei erantzuten diote: kanpo harremanak, barne harremanak, hizkuntza gaitasuna eta erabilera, hizkuntza paisaia eta jarrerak.

diren. Azkenik, jarraipenak, aldi berean, esperientziak iraun izan duen eta irauten duen bitartean zuzenketak egiteko aukera ere eskaini digu.

4.6.1. Taldeen eraketa

Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailburuordetzako Justizia Administrazioarekiko Harremanetarako Zuzendaritzak hala aginduta sustatu dira EAEko Justizia Administrazioan euskararen erabilera areagotzeko esperientzia pilotuak.

Baldintza zehatzak²⁸ betetzen zituzten organoetako langileei zuzen-zuzenean azaldu zitzairen enkargua, hau da, euskararen erabilera sustatzea EAEko Justizia Administrazioan. Eta, horretarako, organo judizialetako talde txikietan lan egingo da, talde txiki bakoitzak bere helburuak zehaztuko dituela, betiere, agintedunen onespena jasoaz.

Hala eta guztiz ere, horretarako, bulego judizialetan zer egin eta nola egin zehazteko, beharrezkoa izan da behin baino gehiagotan erabaki-ahalmenaren mugak non dauden zedarritzea.

4.6.2. Diagnosia

Bulego judizialetan egiten diren prozesuen eta ekintzen azterketa eta diagnosia teknika hauek erabiliz egin da:


- ✓ AMIA: ahuleziak, mehatxuak, indarguneak eta aukerak
- ✓ Eta, kausa-ondorio diagramak

AMIA tresna baliagarria izan da organo bakoitzaren gaur egungo eta etorkizuneko egoerak baldintzatzen dituzten aldagaiak zehazteko, bai erakunde barrukoak zein kanpokoak. Lan hori burutzeko, bost arlotako adierazle multzoak aztertu dira. Arloak ondokoak izan dira:

- Kanpo harremanak: idatzizkoak eta ahozkoak, herritarrekikoak eta Justizia Administrazioa darabilten profesionalenak...
- Barne harremanak: idatzizkoak eta ahozkoak, langileekiko eta agintedunekikoak...
- Hizkuntza gaitasuna eta euskararen erabilera
- Hizkuntza paisaia: organo judizial barnekoa eta kanpokoak, irudi korporatiboa...
- Eta, jarrerak: Justizia Administrazioarekiko eskaintzaren eta eskaeraren aldetikoak...

²⁸

Organo judizialaren egoera soziolinguistikoa eta demolinguistikoa, agintedunen eta langileen onespena eta organoaren izaera.



Tresna honen bidez, bost arlo horietako adierazleak kontuan izanda, esperientzia pilotuetako kideek beren organoetan dauden ahuleziak, mehatxuak, indarguneak eta aukerak identifikatu dituzte.

AMIA	Alderdi +	Alderdi –
Barruko faktoreak	INDARGUNEAK	AHULEZIAK
Kanpoko faktoreak	AUKERAK	MEHATXUAK

Faktore guztiak identifikatuta daudela, arlorik esanguratsuenak lehenetsi dituzte. Oro har, ondoko hauek izan dira:

- ✓ Kanpo harremanak:
 - Idatzizko kanpo harremanak: herritarrari zuzendutakoak, maizen erabilitakoak eta errazen egitekoak liratekeenak.
 - Ahozko kanpo harremanak: lehen hitza euskaraz.
- ✓ Eta, hizkuntza paisaia:
 - Organo judizialetako barne eta kanpo hizkuntza ele bietan.

Esperientzia pilotuetako taldeetan landuko diren arloak zehaztu ondoren, Kausa-ondorio diagramak izan dira balio izan dutenak zehazteko non diren arazoak eta horien artetik zeini heldu edota lehenetsi, beranduagoko fase batean irtenbideak proposatu ahal izateko.

Beti ere, AMIAN lehenetsitako faktoreen azterketatik abiatuta, zein arazo dagoen arakatu nahi izan da Ishikawaren "7H"etako Kausa-Efektu diagrama²⁹ edota arrain ezkata deiturikoaren bitartez.

Arazo-multzoak, oro har, ondokoetan bildu dira:

- Organoetako agintedunak (magistratu, epaile eta idazkari judizialak)
- Langileak eurak
- Herritarra
- Organo judizialetako lan tresnak
- Organo judizialetako lan metodoa

²⁹

Begiratu 4. eranskina, "Arrain ezkata diagrama" izeneko.

- Ekipamendu informatikoa
- Idatzizko produktua: dokumentuak
- Justizia Administrazioako gainontzeko organoak
- Justizia Administrazioarekiko harremana duten eragileak (notario, prokuradore, abokatu...)

4.6.3. Irtenbideak zehaztetik helburuen proposamenara

Organo judizial bakoitzeko diagnosia egin ondoren, ondokoak izan dira emandako urratsak:

- ✓ Konponbideak zehaztea, garrantziaren eta lorgarritasunaren arabera, hau da, esanguratsuenei erreparatu zaie eta lortzeko posibilitateak baloratu dira.
- ✓ Arazo nagusien irtenbideak lehenestea, betiere lorgarri badira. Izan ere, batzuetan esperientzia pilotuen eskumen esparrutik kanpoko arazoak ere azaleratu dira; baina, enkargua argitu ondoren, partaide guztiek bereganatu dute zein den esperientzia pilotuen egitekoa: euskararen erabilera areagotzea euren bulego judizialean eta, horretarako, zer baliabide dugun ere aztertu dugu.

Dena den, lehenik eta behin, formulazio teorikoa landu da eta, bigarrenik, ordea, zehaztasunetara jo da. Adibide gisa hona hemen zehaztu diren helburuen proposamenak:

⇒ Lehenengoa, **formulazio teorikoan**.

Helburuok nola geratu diren formulatuta zehaztearren, hiru organo desberdinetako helburuen proposamenak jasotzen dira; izan ere, esperientzietan izandako organoen izaerak, batez ere, hiru horietan laburbildu ahal dira:

- Organo kide bakarreko edota unipertsonal bat: Lehen Auzialdiko epaitegi bat.
- Organo mistoz osatutako talde bat: barruti judizial bateko epaitegi misto bat.
- Eta, azkenik, bake-epaitegi bat.

Diagnosiari dagozkion azterketak egin ondoren, helburuak zehazte aldera, garrantzia eta lorgarritasuna izan dira kontuan. Ondokoak dira, beraz, organo judizial horietan zehaztu dituzten helburuak, hurrenez hurren:

Lehen Auzialdiko epaitegi baten helburuak

- 1.- Herritarrei zuzendutako dokumentu labur eta errazak ele bietan egitea, hau da, euskaraz eta gaztelaniaz.

- 2.- Beste erakundeei zuzendutako dokumentu labur eta errazak ele bietan egitea, hau da, euskaraz eta gaztelaniaz.
- 3.- Ahozko harremanak herritarrekin, bezeroekin eta beste erakundeekin telefonoz edo leihatilan ele bietan egitea, bezeroaren arabera.
- 4.- Ahozko harremanak nire organo judizialeko langileekin telefonoz zein zuzenean, bai laneko kontuez zein bestelakoez, euskaraz egitea.

Barruti judizial bateko organo misto baten helburuak

- 1 Gure bulego judizialean herritarrentzat eginda dauden iragarki-taulak ele bietan izatea, hau da, euskaraz eta gaztelaniaz izatea.
- 2 Gure bulego judizialean herritarrei zuzendutako dokumentu labur eta errazak (zitazio-zedulak...) ele bietan egitea, hau da, euskaraz eta gaztelaniaz egitea.
- 3 Gure bulego judizialek beste erakundeei zuzendutako dokumentazio labur eta errazak ele bietan egitea, hau da, euskaraz eta gaztelaniaz egitea
- 4 Gure bulego judizialek langileok/ langileoi zuzendutako dokumentu formalak ele bietan egitea, hau da, euskaraz eta gaztelaniaz egitea (baimenak, intzidentziak, ordutegi aldaketak, jaiegunak eskatzea...)
- 5 Ahozko harremanak nire organoko langileekin: euskaraz egitea euskaldunak diren langileekin.
- 6 Gure bulego judizialek kanpo bidaltzen diren fax-orriak eta gutun-azalak ele bietan egitea, hau da, euskaraz eta gaztelaniaz egitea.
- 7 Euskara maila hobetzea

Bake-epaitegi baten helburuak

- 1 Gure bulego judizialek herritarrei zuzendutako dokumentu labur eta errazak (zitazio-zedulak...) ele bietan egitea, hau da, euskaraz eta gaztelaniaz egitea.
- 2 Gure bulego judizial honetan sortu eta bertan geratzen diren dokumentu judizial laburrak (izen-abizen aldaketei lotutako guztiak (6) eta espedientea osatzen dutenak...) ele bietan egitea, hau da, euskaraz eta gaztelaniaz egitea.
- 3 Gure bulego judizialek beste erakundeei zuzendutako dokumentazio labur eta errazak ele bietan egitea: psikiatrikorakoak, Proyecto Hombre eta Manu Ene-rakoak, beste epaitegi batzuetarakoak...
- 4 Herritarrekin ditugun ahozko harremanak ele bietan egitea, bezeroak eskatzen duenaren arabera; baina, hori salbu, lehenengo hitza beti euskaraz egitea.
- 5 Gure bulego judizialean langileon artean ditugun ahozko harremanak, bai laneko kontuez zein bestelakoez, euskaraz izatea.
- 6 Euskara maila hobetzea

⇒ Eta, bigarrena, organo baterako **jarduera planean** jasota³⁰.

4.6.4. Ekintzen inplementazioa

Jarduera planean erabakitako ekintzak zehazteko erabilitako irizpideak honakoak dira:

- ✓ Jardueren garrantzia: ez objektiboki jarduera horiek duten pisu esanguratsuagatik, baizik eta talde bakoitzak hala erabaki duenetik.
- ✓ Jardueren lorgarritasuna: talde bakoitzak izan dituen neurrien arabera inplementazioa egin izan da; izan ere, organo guztietan ez direlako izan egoera bertsuan (euskaldunen kopurua, bulego judizialako egitekoen banaketa...).

Irizpideoi jarraiki, beraz, talde bakoitzak bere helburuak hurrenkeran jarri ditu, bai eta zehaztu ere jarduerak burutzeko izango diren arduradunak, izango den denbora helburuak iristeko eta, azkenik, betetze mailaren jarraipena egin ahal izateko moduko kontrol adierazleak ere adierazi ditu.

Jarduera planean zehaztutakoak burutzeko arduradunei dagokienez, taldeak erabakitakoari jarraiki, oro har, ondokoak izan dira:

- Taldeko bozeramailea
- Taldeko kideren bat
- Taldeko azpitalde bat
- Dinamizatzailea
- Organoko idazkari judiziala

Epeak zehaztutakoan, lanak burutzeko datak eman dira, gehienetan. Helburuen betetze mailak kontrolatzeko, ordea, adierazle mota³¹ ugari erabili da, horien artean honako kategoria desberdin hauetakoak:

- Kardinalak: besteak beste, “dokumentu kopurua jurisdikzioka astean”
- Ordinalak: kuantifikatu gabeko eskala mailakatua: besteak beste, esaldi batekin lorpen maila adierazten duen Lickerten eskala: guztiz, nahiko, gutxi eta batere ez
- Klase tarteak: tarte finakoak dituen eskala kardinala: besteak beste, “dokumentuen kalitate altua, ertaina eta baxua”

³⁰

³¹ 5. eranskinean txertatu da eredu bat, “Jarduera Plana” izenekoak, alegia.

GARAIALDE, Iñigo (2002). Hizkuntz Adierazle-Sistemak. In: 15. Irakasgaia. HIZNET 2002-2003. Eibar.

- Proporzioak: “telefonoz izandako euskarazko harremanen ehunekoak, denbora tarte jakinetan”...
- Eta, dikotomikoak: besteak beste, bai/ez maila zehazten duten adierazleak

4.6.5. Ebaluazioa

Ebaluazioaz ari garenean ez gara ari une bateko azterketa eta emaitzen azalpenaz; izan ere, esperientzia pilotuen ebaluazioa ez da azterketa puntual baten bidez egin. Bestalde, hasiera hasieratik egin da talde bakoitzean ebaluazio etengabea eta zorrozki lotu gatzazkio talde bakoitzak zehaztutako jarduera planeko ekintzen garapenari.

Baina, horrez gain, esperientzia pilotu guztien lehen ebaluazio orokorra beren 7.-8. hilabeteetan egin da, 2003ko apirila aldera. Eta horretarako, hiru alderditatik ekin nahi izan zaio: kualitatibotik, kuantitatibotik eta organo bakoitzak zehaztutako jarduera planeko helburuen betetze mailatik.

➤ 1.- Ebaluazio Kualitatiboa:

Atal honetan, parte hartzaileek esperientzia pilotuek izandako funtzionamenduaz duten iritzia ebaluatu dute. Ebaluazio hau dinamizatzaile taldeak beren beregi horretarako prestatutako galdesorta³² baten bidez bideratu da. Datuen tratamendua, oster, datu-base bat erabiliz egin da.

Zazpi aldagai neurtu nahi izan dira, esperientzia pilotuetan izan diren partaideei pasatako galdesortaren bidez. Horrela, bai galdera itxien bidez eta bai aukera libreko adierazpideak jasotzeko aukeraz baliatuz ere, ondoko hauetaz eman dute euren iritzia:


- Proiektuaz
- Lan kargaz
- Harremanez
- Izandako baliabideez
- Inplikazio mailaz
- Metodologiaz
- Eta, azkenik, izandako igurikapenen edota espektatiben betetze mailaz

Galdetegiko galdera gehienek erantzun positiboa jaso dute; izan ere, gehieneko puntuaziorik positiboena 4 puntukoa bazen, batez beste 3 puntu ingurukoa izan da emandako ebaluazioa parametrarik gehienetan.

³²

6. eranskinean erantsi da galdesorta.

Dena den, organo judizialeko agintarien inplikazio-mailari zegokion balorazioa eta esperientzietan parte hartzen ez zutenen inplikazio-mailari zegokiena aipatutako batez besteko horren azpitik egon da.



➤ 2.- Ebaluazio kuantitatiboa:

Adar biko ebaluazioa burutu da maila kuantitatiboan, idatzizkoarena eta ahozkoena; baina, batez ere, kontuan izanda organo judizialean egiten den produktu nagusia idatzizkoa dela, agiriaren produkzioa neurtu da gehienbat, hau da, elebidun diseinatutako kanpo agiriaren emisioa. Izan ere, barneko dokumenturik ez da ia egiten organo judizialean. Ebaluazioa egiterakoan, halaber,

→ alde batetik, terminalean, funtzionarioek dokumentuak egiteko darabilten tresnan³³, alegia, elebidun diseinatuta eta eskuragarri dauden agiriaren emisioa

neurtu da. Horretarako, esperientzietan izan diren organoetan erregistratutako dokumentazio osoari buruzko azterketa egin da.

→ eta, bestetik, herritarrekiko harremanik handiena duten organoetako ahozko harremanak, kanpora begirakoa soilik, alegia.

⇒ 2.1.- Idatzizkoen alorra

Esperientzia pilotuetan dauden taldeetako jarduera plan guzti-guztietan zerbitzu hizkuntza lehenetsi da, lan hizkuntzaren aurretik, nahiz eta lan harremanei dagokien esparrua ere landu den talderen batean (batez ere, bake-epaitegietan).

Bulego judizialean jaulkitako dokumentuen azterketa egin ondoren, diseinu elebidunari begira, gehienbat, maizen egindakoak, errazenak eta, halaber, herritarrengana eta Justizia Administrazioaz gainontzeko organoetara zuzendutakoak izan dira premiazkoenak. Hortaz, gaur egun diseinu elebidunean dauden dokumentu-ereduak gutxi badira ere, gehien-gehien egiten direnak diren aldetik, oso kopuru esanguratsua osatzen dute.

Dena den, kontuan izan behar da, bulego judizialeetatik bideratzen den dokumentazioa, halabeharrez, bai izapidetzeari begira bai eta prozedurari ere, eredu jakinetan sailkatuta dagoela eta, gehienetan, Justizia Administrazioko funtzionarioen lana, kasuan kasu, ereduotan eskatutako informazioa txertatzea izaten dela.

Ondoko taulan agertzen da EAEko Justizia Administrazioko dokumentuen banaketa, bai jurisdikziokoa bai hizkuntza ereduaren arabera sailkatuta.


EAE-KO BULEGO JUDIZIALETAKO DOKUMENTUAK						
JURISDIKZIOA	EREDU KOPURUA GAZTELA- NIAZ	EREDU KOPURUA EUSKARAZ	% EUSKARAZ	EREDU KOP ELE BIETAN	% ELE BIETAN, euskarazko dokumentu kopuruaren arabera	% ELE BIETAN, kopuru osoaren arabera
Zigor Arloa	7339	499	6,80%	46	9,22%	0,63%
Zibil Arloa	6401	691	10,80%	157	22,72%	2,45%
	13740	1190	8,66%	203	17,06%	1,48%
Administrazio Auzietako Arloa	3628	78	2,15%	0	0,00%	0,00%

UNIXen izapidetzen dira bulego judizial nagusietako dokumentuak, hau da, eredu bakoitzak baditu bai aldaezinak diren bere idatz-zati finkoak, bai eta funtzionarioek kasuan kasu txertatu beharrekoak ere; beraz, langileek mugatuta dituzte bai eredu horien formatuak zein eduki nagusiak eta, horrela, gehienetan, aldakorrak diren eremuak betetzen dituzte soil-soilik.

Bake-epaitegietan, bestalde, beti-beti ez bada ere, dokumentuak egiteko ordenagailuz baliatzen direla-eta, aplikazio informatiko berezia jarri zaie dokumentuak ele bietan zein hizkuntza ofizialeko batean egiteko, nahierara.

Lan Arloa	1761	138	7,84%	0	0,00%	0,00%
GUZTIRA	19129	1406	7,35%	203	14,44%	1,06%

Modu grafikoagoan izateko EAEko Justizia Administrazioako dokumentuen hizkuntza eredua, ondokoan azaltzen da zein den jurisdikzio bakoitzari dagozkion kopuruak bai gaztelaniaz, bai euskaraz bai eta diseinu elebidunean ere.



Jurisdikzio bitan, Lan Arloan eta Administrazio Auzietakoan, ez dago oraindik diseinu elebidunean prestatutako dokumenturik; izan ere, dinamizatzailerak ez dira orain arte jurisdikzio horietan aritu eta, beraz, nahiz eta euskaraz izan badiren eredu gutxi batzuk, oraindik ez dira prestatu ereduok ele bietan. Baina, duela gutxi, bulego judizialean abian diren kalitate esperientziekin batera, Lan Arloko dokumentuen aukeraketa egin da eta itzultze prozesuan daude, beranduago ele bietako diseinuan jarri ahal izateko.

Bestalde, ele bietako dokumentuek berekin dakarte idatz-zatien formatuak eta edukiak testatu beharra langileekin, hobekuntzak adostearena... eta, azkenik, ereduetan txertatzea.

Gaur egun lehenengo urratsak eman badira ere Lan Arloko Salan, ez da oraindik eredu elebidunik inplementatu.

Bulego judizialeko dokumentu-ereduak ele bietan jartzeko, beraz, badago oraindik zeri heldu.

⇒ 2.1.- Ahozkoen alorra


Ahozko harremanetan zerbitzu hizkuntza landu da eta ez lan hizkuntza, nahiz eta esperientzia pilotuen saioetan landutakoak organo barruan ere bere isla izan duen.

Beraz, kanpo harremanak lehenetsi dira organo guztietan, barnekoak aurrerago lantzeko utzita eta, lehenik eta behin, EAEko Justizia Administrazioako erabiltzaileen hizkuntza eskubideak bermatu nahian.

Izandako aurrerapenak nabariak izan dira organo guztietan; horrela, bake-epaitegietan eta informazio zerbitzuetan erabat bermatu dira herritarren hizkuntza eskubideak, beren beregi bideratuaz estrategia komunikatibo zehatzak, organoaren izaeraren arabera. Gainontzekoetan, ordea, organoko kideen euskara gaitasunaren arabera erantzuna izan da.

Dena den, aipatzeko moduko kasurik ere bada: beren egiteko bakarra informazioa ematea den organo judizial bateko funtzionarioen hizkuntza eskakizunik altuena bigarrena izanda, euskaraz aritu diren herritar guztiek aukera izan dute euskaraz atendituak izateko.

Baina, zenbat egiten da euskaraz? Ondoko laukiak adierazten du informazio bulegoetan, gehienbat ahozko argibideak ematen diren tokietan, alegia, zenbat egin den euskaraz. Neurketak 3 hilabetetan³⁴ izandako batez bestekoak dira.



34


2003/02/01etik 2003/04/30era artean jasotako datuen batez bestekoak dira Bilboko Informazio zerbitzuetan. Neurketak astean bitan jaso dira, baina egunak txandakatuz: aste batean, astelehenetan eta asteazkenetan izan badira, hurrengo astean beste egun diferenteetan izan dira. Datuen jasotzaileak langileak eurak izan dira, baina astean behingo neurketetan 30'tan dinamizatzailea ere izan da datuak jasotzen. Dena den, bai batzuek zein besteek jasotako aldetik ez da alde esanguratsurik izan, nahiz eta ordutegiek alde nabarmenak azaldu dituzten (11:30etik 01:30era izaten da komunikaziorik gehiena).

- **3.- Esperientzia Pilotu bakoitzaren ebaluazioa:** atal honetan organo bakoitzean diseinatutako jarduera plan bakoitzaren betetze maila neurtu da. Alderdi bitatik egin da ebaluazio hau:

- ➔ Batetik, esperientzia pilotuetan diren taldekideei pasatako galdesorta batez baliatuz. Galdesorta horretan jasotzen da zenbatean bete diren hasieran jarritako helburuak, zein alorretan bai eta zeinetan ez eta, azkenik, zein diren proposatutako neurri zuzentzaileak.
- ➔ Bestetik, kudeaketa planei buruzko parametro berezien aldetiko neurketa izan da: eraginkortasuna, efizientzia, inpaktua, pertinentzia eta etorkizuneko bideragarritasunari buruzkoa, alegia.

Ebaluazio mota hau dinamizatzailerak gidatu eta egin du hasierako urratsetan eta, ondoren, taldekideek iradokitako aldaketak egin ostean, adostu egin da esperientzia pilotuetan izan den talde bakoitzean. Izan ere, galdesortan jasotakoaren osagarri eta osatzaile gisakotzat hartua izan da, ikuspegi globalago batetiko ikuspegia eskaintzearen.

Horrela, helburu orokorrak eta zehatzez gain, bideratutako ekintzak eta izandako baliabideak zehaztu dira, aldi berean adieraziaz ere zein diren izandako emaitzak eta proposatutako neurri zuzentzaileak



Azterketa horren arabera, oro har:

⇒ Eraginkortasuna: helburuak bete diren adierazten du, zehaztutako epean.

Esperientzia pilotuak benetan eraginkorrak izan direla esan daiteke. Besteak beste, aparteko kasuen artean, Ibarako bake-epaitegian emititutako agirien %90a formatu elebidunean emititu dira.

Gainontzekoetan, ostera, funtzionarioen ustetan helburuak bete badira ere, kontuan hartu behar da organo judizial batzuetan nahikoa izan zaiela tramitatzen dituzten karpetarik ohikoenak ele bietan egitea epaitegiko produkzioz handiena izateko eredu horretan; izan ere, gutxi dira eredu horiek, baina, epaitegi batzuetako idatzizko hiru laurdena baino gehiago dira (zitazio-zedulak, jakinarazpenak, exhortoak...).

Nahikoa izan da, beraz, eredu gutxi batzuetan trebatzea bake-epaitegietak funtzionarioak guztizko produkzioz gehiena ele bietan izateko.

⇒ Efizientzia: helburuak betetzea aurreikusitako baliabideekin.

Baliabide horiek giza baliabideak izan daitezke, materialak, finantzarioak, kudeaketa mailakoak, etab. Esate baterako, bake-epaitegiarako aplikazio informatikoaren diseinuak eta garapenak diru aldetik kostu txikia eragin du, nahiz eta langileei beraiei eta dinamizatzaileari ahalegin nabarmena egitea ekarri dien.

Aurrerantzean, dena den, frogatuta geratu da nahitaezko euskarria dela bake-epaitegiatarako aplikazio informatikoa dokumentuak formatu elebidunean egin ahal izateko.

- ⇒ Inpaktua: planifikatutako jarduerak komunitatean edota Justizia Administrazioan erabiltzaileengan izan duten eragina.

Beste batzuen artean, epaitegi mistoetan esperientzia pilotuak abian jartzea eta formatu elebidunean dauden agiriak emititzeak aliziente eta interes berri bat ekarri die agiri elebidunak emititzeko garaian, epaitegi horiei ez ezik bake-epaitegiei ere.

Eraginaren tamaina ulertu ahal izateko, kontuan izan behar da epaitegi mistoek bake-epaitegiekin duten agiri bidezko harremana oso estua dela (epaitegien arteko lankidetzari lotutako dokumentazio osoa, exhortoak...).

- ⇒ Pertinentzia: helburuak eta emaitzek ea bat egiten duten aplikatutako eremuan.

Bake-epaitegiatarako aplikazioa sortzea, esate baterako, bi aldetatik izan da pertinetza, bai hizkuntza normalkuntzaren ikuspegitik baita epaitegi hauen gestio lanaren ikuspegitik ere; izan ere, esperientzia pilotuetan izan diren bake-epaitegiatarako aplikazio informatiko berriari ekin aurretik ez zuten ia ezer ele bietan egiten esperientzia pilotuetan hasi aurretik.

Lan orientabide berriak, bestalde, bulegoko lanaren kudeaketa eraginkorragoa ekarri die funtzionario horiei.

- ⇒ Etorkizuneko bideragarritasuna: zer neurritan iraungo duten izandako lorpen mailek kanpoko interbentzioa eteten denean, hau da, esperientzia hauetan izandako euskarriak desagertzean, bai materialak, bai finantzarioak, bai giza baliabideak, etab. ea jarraitzerik izango den landutako bide beretik.

Badirudi, alde batetik, esperientzia pilotuen bideragarritasuna nahiko ziurtatuta dagoela; izan ere, langileek esperientzia pilotuetan parte hartzen jarraitzeko aldeko jarrera dute eta, baldin eta beharrezkoak jotzen diren baliabideak esleituko balira, prest egongo lirarteke aurrera jarraitzeko.

Bestalde, egindako bideak bere urratsak ere utzi ditu eta, esperientzia pilotuen egun batetik besterako desagerpena emango balitz ere, euskararen normalizazio bidean izandako zenbait ildok jarraitu egingo lukete (dokumentu elebidunak, errotulazioan eragindako aldaketak, arloko terminologia bereziko bildumak, Justizia Administrazioarekiko harremanik handiena duten eragileen justiziarekiko irudikapena...)

5. Ondorioak

Lan honetan orain arte egindakotik, labur eman bada ere,

- ✓ Alde batetik, EAEko Justizia Administrazioako esperientzia pilotuek gaur egun arte emandakoa azaldu nahi izan da eta horretarako, hurbilpenerako, gutxieneko baldintzei eta baldintzatzaileei buruzko informazioaz baliatu gara.
- ✓ Eta, bestetik, emandako informazioak helburu hori izan duela eta, zehaztutako hipotesiak zer neurritan bete diren, bete badira, eta zer arrazoiri erantzuten dioten. Halaber, izandako desbideraketak ere argituko dira.

Hasieran adierazitako hipotesiak lau izan dira. Baina, bete al dira hipotesiak? Bana-banako azterketari ekin aurretik, kontuan izan behar da 24 taldetan izan direla esperientzia pilotuak eta, emaitzak berdinak izan ez badira ere, joera bertsukoak izan direla. Hona, beraz hipotesien arabera bana-banakako azterketa:

1. Metodologia parte hartzailearen onurak edota nork bere konpromisoak hartzen dituenean

Erabilitako metodologiaren arabera, adostutako konpromisoak norbanako mailakoak eta hobetze talde bakoitzaren baitakoak izan dira eta, esperientzia pilotuak izan diren organo guztietan, jarduera planetan zehaztu dira betiere arduradunak, epeak eta adierazle zehatzak.

Jarduera planetan jarritako adierazleen azterketa egin ondoren, helburuen betetze maila beren beregi zehazteko parte hartzaileek adierazitakotik, %80,20an bete dira hasieran jarritako helburuak. Bestalde, ebaluazio kualitatiboaren emaitzei erreparatuta, “guztiz edo ia guztiz” bete dira helburuok.

Beraz, datuok kontuan izanik, baieztatu daiteke erabilitako metodologiak bete-betean asmatu duela izan garen taldeetan. Eta, emaitzez gain, parte hartzeari buruzko datuei begira, halaber, bi edo hiru asterik behingo bileretan izandako asistentzia, salbuespenak salbuespen (oporrak, baimenak, bajak...), erabatekoa izan da.

Horrez gain, hasierako taldeak mantendu ez ezik, gehitu ere egin da bulego judizialeko eskaria esperientzia pilotuetan parte hartu ahal izateko: bi talde gehiagori ekin behar izan zaio 2003ko martxorako eta, ildo beretik, badira talde gehiagoren eskariak euskararen esperientzia pilotuetan hasteko.

Arrazoiak zein diren? Taldeetako partaideek eurek zehazten dituztela helburuak eta eurak direla, halaber, prozesuaren aktore nagusiak. Inplikazioa, beraz, erabatekoa da taldeotan.

2. Hizkuntza gaitasuna eta konpromisoa euskaraz egiteko

EAEko Justizia Administrazioako esperientzi pilotuetan parte hartu ahal izateko nahitaezko baldintzetako bat euskara maila izan zen, HABEren 6./7. urratetik gorakoa, alegia, eta hasieratik osatutako taldeetan zorrotz bete zen baldintza hori; izan ere, uste baitzen profil hori betetzen zutenek, sentsibilizaziorik handienekoak zirelakoan, egin zezaketela ahaleginik handiena euskararen erabilera areagotzeko bulego judizialean.

Horrela, masa kritiko kualifikatutik abiatu ginen eta, beraz, hizkuntza gaitasunaren baldintza bete ezean, ez zegoen esperientzia pilotuetan parte hartzerik.

Baina, prozesua hasi zenetik egin bada ere, jarduera planetako ekintzekin aurreratu ahala, ezinbestekoa izan da komunikazio bideak jorratzea eta euskaldunak ez direnekin ere harremanetan egotea.

Beraz, talde bat baino gehiagotan, euskaldunak ez diren funtzionarioen ekarpenak ere kontuan hartuak izan dira. Kontuan hartuak ez eze, organo batzuetan modu paraleloan ere jorratu izan dira hainbat azterketa (dokumentu elebidunen bideragarritasuna, hobekuntzen inplementazioa...), organo horietako batzuetan talde mistoak sortuaz eta besteetan, ordea, aparte lan eginaz, hau da, euskarazko hobetze taldetik kanpo.

Hasiera batean, esperientzia pilotuetan parte hartzeko baldintzetako bat hizkuntza gaitasuna bazen ere eta, beraz, sortutako taldeak euskaldunaz osatuak baziren ere, zerbitzu hizkuntzari dagokion idatzizko atalean, funtsezkoak izan dira euskaldunak ez diren funtzionarioen iradokizunak, dokumentuen testatze lanak eta aparteko azterketak bideratu dituzten aldetik.

Era horretan, EAEko Justizia Administrazioako produkzio nagusia idatzizkoa dela eta, dokumentazioari buruzko atalkako azterketa zehatzak bideratu dituzte taldekideek. Dinamizatzailerek, bestalde, talde horiek kudeatzen, baliabidez hornitzen eta beharrak asetzen badute nahiko lanik; izan ere, sarritan, beren beregi sortu behar izaten da berariazko hainbat produktu (unitate didaktikoak, webeko euskarriak³⁵, produkzio idatzirako egokitzapenak...)

3. Esparru soziolinguistikoa eta presio sozialak eragindako erabilera

Esperientzia pilotuak martxan jartzeko irizpideetako bat esparru soziolinguistikoa izan da eta horretarako, erreferentzia gisa, 1996ko derrigortasun indizeak³⁶ erabili dira. Gainontzeko baldintzak betetzen baziren (bulego judizialean euskaldun kopuru nahikoa egotea, herritarrekiko harremana izatea eta, azkenik, bulego judizial horietako partaideen onespena), eremu euskaldunenetan jarri ziren martxan esperientzia pilotuak, besteak beste ondoko ia hauek guztiek 70etik gorako derrigortasun indizea zuten (Legazpik, 62koa):

- ✓ Bizkaian: Lekeitio, Ondarroa, Arratia (bake-epaitegien elkarteak) eta Durango
- ✓ Gipuzkoan: Ibarra (bake-epaitegien elkarteak), Tolosa, Lazkao (bake-epaitegien elkarteak), Legazpi eta Bergara.

Gallastegi³⁷ irakaslearen hitzetan,

“...En este sentido, recordamos ahora que la demanda actual de uso del euskara en la Administración de Justicia no puede ser el criterio o, cuando menos, no el único que determine en que zonas concretas es

³⁵

<http://www.justizia.net/Normalizacion/default.asp?Idioma=eu>

³⁶

1. eranskinean txertatu dira EAEko udalerrien 1996ko derrigortasun indizeak.

³⁷

GALLASTEGI, César (2000). La normalización del euskara en la Administración de Justicia. Deustuko Unibertsitateak/ Zuzenbide Fakultatea. 64. orr.

necesario dotar a la Administración de justicia de personal bilingüe, ya que es sabido que en el ámbito lingüístico la propia oferta conlleva un aumento de la demanda..., además de hallarnos ante una cuestión de ejercicio de un derecho lingüístico...”

Beraz, hasieratik kontuan hartu bazen ere bulego judizialean euskaraz egindako eskaintza handitzeak eta egokitzeak ekarriko zituen eskariaren aldetiko aldaketak, gaur egunekora ekarrita, esan daiteke

- Bake-epaitegietako zerbitzu hizkuntzari begira, ahoz egiten denekoetan, herritarrek hala nahi badu, euskaraz egiten dela aipatutako epaitegietan.
- Gainontzeko organo judizialean, nabarmenagoa da herritarrek euskaraz egitea eremu euskaldunenetan. Hortaz, Donostian eta Bilbon dauden Lehen Auzialdiko, Instrukzioko, Probintzia Auzitegiko eta Auzitegi Nagusiko funtzionarioek ez bezalaxe, Durango, Tolosa eta Bergarako epaitegietan dauden funtzionarioek hurbilagotik, zuzenagotik eta maiztasun handiagoz egin behar izaten dute euskaraz.

Horrela, “lehen hitza euskaraz” izeneko jarduera landutakoan, euskararen erabilera biderkatu egin da, batez ere organo horietan, eta euskaraz ikasten ari diren funtzionarioek eragingarri berriak aurkitu dizkiete euskararen ikas prozesuari eta euskaltegian ikasitakoari; izan ere, sarri askotan, euskaltegitik at ez zuten beste inon euskaraz egiterik. Orain, ordea, badakite non praktikatu ahal duten ikasitakoa: lankideekin eta EAEko Justizia Administrazioari bezerekin.

EAEko Justizia Administrazioan izan da, bada, jauzirik euskararen erabileran azken urte honetan: gaitasunetik erabilerarako lehen urratsak emateko oinarriak ezarri dira; hau da, herritarrek eta Justizia Administrazioaren erabiltzaileek eskaintza zein den jakinaz batera, esperientzia pilotuetan ari diren organoetako hizkuntza eskaintza, alegia, euskaraz bideratzen ari dira beren eskabideak eta, ondorioz, euskaraz zekiten baina erabiltzen ez zuten funtzionarioak euskaraz egitera pasa dira praktikan.

Horrela, zerbitzu hizkuntzaren alorreko ahozko harremanei bagagozkie, esperientzia pilotuak izan diren organoetako funtzionarioek praktikan jarri dute beren euskara.

Bulego judizialeko lan hizkuntzari dagokionez, ordea, urteetako inertziak ez dira oraindik gainditu, nahiz eta lehen urratsak egiten hasi diren hainbat epaitegitan: lehenik konpromisoak adieraziaz; bigarrenik, zehaztuaz; eta, hirugarrenik, protokolo zehatzak burutuaz.

Bulego judizialeko lan esparruan euskara erabiltzeko jauzia zaila den arren, jarrera aldaketa nabarmena eskatzen duelako, hobetze taldeetan izandako saioek eurek berez ekarri dute taldeetako partaideen arteko konpaktazioa eta eraginak nabariak izan dira talde bat baino gehiagotan, beren artean euskaraz egiten hasi baitira apurka-apurka.

4. Organoen egitekoak eta euskararen atzeraelkadura (Feed-back)

EAEko Justizia Administrazioari organoaren ezaugarriak oso dira desberdinak dituzten egitekoen arabera; baina, oro har, bi kategoriatan bana ditzakegu:

- Herritarrengandik oso hurbil dauden organo judizialak: Bake-epaitegiak eta Erregistro Zibilak. Organo horiek, herritarrari Justizia Administrazioako zerbitzua emateko xedez, ondokoetan daude kokatuta,

→ Bake-epaitegiak: Lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegirik ez dagoen udalerrietan daude.

Egitekoak: Batez ere, Erregistro Zibileko inskripzioak eta Zibileko eta Zigor Arloko munta txikiko eskumenek eragindakoak (zitazioak, eginbideak, jakinarazpenak, salaketak, agerraldiak...)

→ Eta, Erregistro Zibilak: udalerrri guztietan daude, kasuan kasu, bai bake epaitegietan bai Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko epaitegi eta atxikitakoetan, bai eta Probintzia Auzitegiak direnekoetan ere beren beregi egiteko horretaz arduratzen diren zerbitzuetan.

Egitekoak: Erregistro Zibileko inskripzioak, ziurtagiriak, jakinarazpenak...

- Herritarrengandik urrutiago dauden organo judizialak: gure kasuan, hau da, esperientzia pilotu hauetakoak kontuan izanda, ondokoak izango lirateke:

→ Dekanotzak, Lehen Auzialdi eta Instrukzioko Epaitegi mistoak eta kide bakarrekoak, Probintzia Auzitegiak eta Auzitegi Nagusia.

Egitekoak: eremu zabaleko organo judizialak daude honetan. Dena den, oro har, ondokoak izango lirateke beraun egiteko nagusiak:

- Dekanotzak: Gure kasuan, informazioa emateaz arduratutako zerbitzuak aukeratu ditugu: Informazio Zerbitzuak eta Bisita Gidatuak.
- Lehen Auzialdiko Epaitegiak: Norbanakoen arteko erreklamazioak bideratzen dituzte (demandak, erreklamazioak, kalte-ordainak, ordainketa gabeziak, banantzeak eta dibortzioak...)
- Instrukzioko Epaitegiak: Faltak eta delituak.
- Probintzia Auzitegiak: Batez ere, Lehen Auzialditik eta Instrukzioko epaitegietatik errekurritutako Zibil eta zigor arloko gaiak.
- Auzitegi Nagusia: EAEko maila goreneko gaiak.

Aurreko banaketa ez da izan ez zorizkoa ez eta bat-batekoa ere; izan ere, epaitegien arteko mugak elkarloturik badaude ere, badago alderik batzuen eta besteen artean. Hortaz, hipotesian hausnartutakoa, hau da, “zenbat eta herritarrekiko harreman handiagoa izan bulego judizialeko partaideek, orduan eta prestutasun handiagoa euskaraz egiteko”, prozesuari eta izandako emaitzei begira, ez da erabat bete.

Oro har, organo judizialeko partaideek herritarrekiko duten harremanen maiztasuna erlazio zuzenean badago ere euskararen erabilerarekin³⁸, egia esateko, zenbait baldintzatzailek hipotesi nagusiaren formulazioaz zenbait hausnartzera egitera garamatzate.

Hausnarketa horietako pare bat,

- Lehenengoa, lan kargari buruzkoa: berdin dio non kokatzen den euskararen erabilera bultzatzeko esperientzia pilotua, lan kargarena konponduta ez badago. Adibiderik garbiena bake-epaitegi batean gertatutakoa: hasieran baldintza guztiak betetzen zituen eta partaideak inon baino gogotsuago zeuden aurrera egiteko lehenbailehen; baina, Justizia Administrazioako lekualdatze lehiaketaren ondorioz, egitekoen banaketa berria medio, sortutako konpenezinek hasierako erabilera ratioak ezer ezera eraman dituzte.
- Eta, bigarrena, konpromiso mailari buruzkoa: Lehen Auzialdiko epaitegi batean euskaldunak ez diren langileak ere modu aktiboan ari dira beren organorako jardueraren egiteko batzuen burutzapenean (bulego judizialeko idazkiei buruzko testatze eta hobetze lanak...)

Beraz, baieztatu daiteke herritarrekiko harremanik handiena duten organoetan egingo dela euskararik gehien; baina, betiere, esperientzia pilotuetan izateko baldintza guztiak betetzen badira eta, bestalde, lan kargak eraginik ez badu bulego judizialeko ohiko funtzionamenduan.

Baina, eta euskaraz gehiago egingo dela esaten denean, zer esan nahi da horrekin?

- ❑ Lehenik eta behin, euskararen erabilera handiagotu egingo dela
- ❑ Eta, bigarrenik, erabilera hori, batez ere, zerbitzu hizkuntzari begira kanpo harremanetako izango dela, gehienbat,
 - Ahozkoa, bake-epaitegietan eta informazio zerbitzuetan
 - Eta, idatzizkoa, gainontzeko organoetan.

Horiek horrela, EAEko Justizia Administrazioan gaur egun arte zerbitzu hizkuntzaren alorra ukitu da soil-soilik; lan hizkuntzarena, beste atal batzuen artean, lantzeaz dago oraindik.

38

Euskara gehiago erabiltzen da herritarrekiko harremanik zuzenena duten organo judizialean, hau da, bake-epaitegietan eta erregistro zibilean.

6. Azken hausnarketa edota gogoeta

Esperientzia pilotu hauen helburu nagusiak bi ziren:

- Alde batetik, herritarren hizkuntza eskubideak bermatzea EAEko Justizia Administrazioak bideratzen duen zerbitzutik
- Eta, hainbat urtetan EAEko Justizia Administrazioaren euskalduntzean inbertitutakoa errentabilizatzea.

Helburuon garapenari begiratzuz gero, badago esaterik, erabat bete ez badira ere, zerbitzu hizkuntzaren alorrean behinik behin, 7-8 hilabeteen jauzi nabarmena izan dela, bai herritarren hizkuntza eskubideen bermean bai eta Justizia Administrazioako funtzionarioen gaitasunetik erabilerarako bidean ere.

EAEko Justizia Administrazioan orain arte egindakoari erreparatuz gero, aldaketarik nabarmenenak organo judizial jakin batzuetan izan arren, oro har, esan daiteke eman direla jadanik euskararen normalkuntzarako lehen urratsak. Adibiderik garbiena, apurka-apurka bada ere, dokumentazio elebidunaren implementazioa eta euskarri informatikoen hedapena dira, bake-epaitegietan zein gainontzeko organoetan.

Aldaketa horiei eutsi ahal izateko, ordea, komenigarria da orientabide pare bat izatea kontuan:

- Eusgarritasuna edota lorpenei eusteko posibilitatea: helburuak lorgarriak izan behar dira eta dagozkien baliabideez hornituta egon behar dute
- Eta, atzeraezintasuna: lortutakoak atzera ez egiteko, “lege” izaera hartu behar dute modu horiek, sistematika baten bitartez eta erakundearen baitan txertatuz, egiteko ohiko modua bilakatuaz eguneroko egitekoetan.

Baina, lehenik eta behin, horretarako, behar-beharrezkoa da:

- Agintedunen onespina eta inplikazioa
- Bai eta langileena ere
- Metodologian asmatzea
- Baliabide egokiak izatea eskura
- Komunikazio kanal egokiak izatea edota, bestela, ez dauden kasuetan, sortzea eta taxuz erabiltzea, partaide guztiek jakin dezaten zertan ari garen eta zer lortu dugun.
-

7. Erabilitako bibliografia

- 10/1982 LEGEA, azaroaren 24koa, euskararen erabilpena arauzkotzekoa. EHAA, 160. zk., 1982/12/16.
- 86/1997 DEKRETUA, apirilaren 15koa, Euskal Autonomia Elkarte herri-administrazioetan euskararen erabilera normalizatzeko prozesua arautuko duena. EHAA, 72. zk., 1997/04/17.
- 117/2001 DEKRETUA, ekainaren 26koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Administraziooko hizkuntza normalkuntzarako neurriak finkatzen dituen. EHAA, 137. zk., 2001/07/17.
- 309/2000 DEKRETUAREN ERANSKINA, abenduaren 26koa, Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailaren eta Sindikatuen arteko bigarren Akordioari buruzkoa.
- AGIRREAZKUENAGA, I. (1998). Principios, planificación y pluralismo lingüístico en Euskal Herria. In: Revista Internacional de Estudios Vascos, nº 43-2. Vitoria-Gasteiz.
- ALKORTA IDIAKEZ, Itziar (2003). Justizia eta zuzenbidea. In: Euskonews & Media. 200. zk. (2003/02/21-28) eta <http://suse00.su.ehu.es/euskonews/0200zbk/gaia20001eu.html>
- AURREKOETXEA, Arantza (2000). Erakunde pribatuetako euskara-planak: datozen hamar urteetarako markoa. In: HIZPIDE, 45. zk. HABE. Vitoria-Gasteiz.
- COBREROS MENDAZONA, E. (2000). El régimen jurídico de la oficialidad del euskara. HAEE-IVAP. Oñati.
- ECO, U. (2001). Cómo se hace una tesis. Ed. Gedisa. Bartzelona.
- ERKOREKA, J.I. (1996) Euskara euskal administrazioetan: erabilera arautzeari aurpegi emateko bideak. In: Eleria, 0 zk.
- ETXEBERRIA GURIDI, Patxi (2000). Euskaraz auzitaratzeko eskubidea. In: Eleria, 5 zk.
- EUSKALIT: Euskal kalitatea eta Kalitaterako Euskal Iraskundea. In: http://www.euskalit.net/euskera/index_euskera.htm
- EUSKO JAURLARITZA (1997). Euskararen berripapera. In: http://www.euskadi.net/euskara_berripapera/euskera/66eus.pdf. Hizkuntza Politikarako Sailordetza. Vitoria-Gasteiz.
- EUSKO JAURLARITZA (1997). Euskararen erabilera lan munduan: erabilera planen metodologia. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Vitoria-Gasteiz.
- EUSKO JAURLARITZA (1997). Jornadas de reflexión sobre el euskara en la Administración de Justicia: Ponencias. In: Jornadas organizadas por la Viceconsejería de Justicia, CGPJ, TSJPV, Viceconsejería de Política Lingüística e IVAP, diciembre de 1997. Vitoria-Gasteiz.
- EUSKO JAURLARITZA (1999). Lankidetz hitzarmena, 1999ko otsailaren 18koa, Aginte Judizialaren Kontseilu Nagusiaren eta Eusko Jaurlaritzaren artekoa, EAEko Justizia Administrazioaren zenbait arlotan euskararen erabilera normalizatzeko xedea duena.

- EUSKO JAURLARITZA (2003). Euskararen egoera juridikoa. In: http://www.euskadi.net/euskara_araubidea/legeus.pdf#page=10
- EUSKO JAURLARITZA (2003). Justizian zehar ikusmiran. In: http://www.justizia.net/InformacionCorporativa/html/paseo_eu.htm
- GALLASTEGI, César (2000). La normalización del euskera en la Administración de Justicia. Deustuko Unibertsitatea/ Zuzenbide Fakultatea. Bilbo.
- GARAIALDE, Iñigo (2002). Hizkuntz Adierazle-Sistemak. In: 15. Irakasgaia. HIZNET 2002-2003. Eibar.
- GONZALEZ, Lara (2000). La evaluación expost o de impacto: un reto para la gestión de proyectos de la cooperación internacional al desarrollo. In: Cuadernos de trabajo de Hegoa. 29 zk. HEGOA. Bilbao.
- INTXAUSTI, Kike (1998). Hobekuntza-taldeek ekipoen metodologia. In: Foro XXI-Kalitatea L.H. Publikoan. Kalitate katedrako liburutegia. EHU/ UPVko Gipuzkoako Campuseko errektoreordetza. Donostia-San Sebastián.
- INTXAUSTI, Kike (1998). Metodología de los grupos de mejora: SAREKA. In: Autoevaluación y Planes de Mejora: La experiencia del IEFPS de Usurbil. Organización y Gestión Educativa. 4 zk. EHU/ UPVko Kalitate katedrako liburutegia. Gipuzkoako Campuseko errektoreordetza. Donostia-San Sebastián.
- IRIONDO ARANA, Xabier (1996). Hizkuntzen erabilera administrazioko barne harremanetan: eredu konparatuak eta euskararen praktika. In: Herri Arduralaritzazko Euskal Aldizkaria. 44 (II) zk. Vitoria-Gasteiz.
- IRIONDO ARANA, Xabier (1998) Euskara Justizia Administrazioan. In: Bat, Soziolinguistika aldizkaria. 29. zk. Andoain.
- MINISTERIO DE ASUNTOS EXTERIORES: Secretaría de Estado para la Cooperación Internacional y para Iberoamérica (1998). Metodología de evaluación de la cooperación española. Editorial Cyan, proyectos y producciones editoriales, S.A. Madrid.
- MUNIATEGI ELORZA, Abel (2000). Ondorioak. In: Eleria, 5 zk.
- PALOM IZQUIERDO, Francisco Javier (1987). Círculos de calidad: Teoría y práctica. Marcombo Boixareu Editores. Barcelona.
- SAN MIGUEL, Nekane (1997ko otsaila). Euskara Justizia Administrazioan: ohar batzuk. In: Senez, 19.zk. eta <http://www.eizie.org/Argitalpenak/Senez/19970101/Sanmiguel>
- SHEWART, Walter (2000). La calidad total. In: http://www.euskalit.net/calidad_total/folleto5.pdf.
- TAPIA BARREÑO, Jaime (2000). Hizkuntza normalkuntza prozesua Justizia Administrazioan. In: Eleria, 5 zk.
- URRUTIA, Andres eta LOBERA, Gotzon. (1995). Euskara, Zuzenbidearen hizkera. Deustuko Unibertsitatea. Bilbo.
- WINTER, Robert (2001). Manual para el trabajo en equipo. In: <http://www.sc.ehu.es/svwkalit/ManualTrabajoEquipo/Manual/manual-c.html>.

8. Eranskinak

1. eranskina: EAE-KO UDALERRIEN DERRIGORTASUN INDIZEAK (1996)

Udalerrria	Derrigortasun indizea (1996)	Udalerrria	Derrigortasun indizea (1996)
Beizama	100	Loiu	63,29341317
Larraul	100	Beasain	63,00876903
Albiztur	99,47916667	Elorrio	62,6782994
Baliarrain	99,45652174	Legazpi	62,10243474
Orendain	99,35064935	Arrankudiaga	61,89151599
Guizaburuaga	99,25925926	Amorebieta-Etxano	61,79526162
Altzo	99,03536977	Bérriz	61,76762661
Gaztelu	98,93617021	Lezo	61,63471778
Nabarniz	98,75	Abadiño	61,27891557
Errezil	98,72204473	Hernani	60,85430718
Gaintza	98,4962406	Arrasate/Mondragón	60,78698542
Elduain	98,45132743	Andoain	58,75986314
Abaltzisketa	98,2421875	Urretxu	58,48010437
Amoroto	98,21917808	Urnieta	58,31325301
Munitibar-Arbatzegi Gerrikaitz	98,20971867	Olaberria	57,99200799
Lizartza	98,18897638	Eibar	57,89200589
Orexa	98,07692308	Urdúliz	57,08516887
Aizarnazabal	98,06985294	Iurreta	56,59564823
Altzaga	97,82608696	Zaldibar	56,15
Ispaster	97,65372168	Zamudio	55,54080956
Ajangiz	97,65013055	Durango	55,37817996
Berastegi	97,63736264	Barrika	51,85004869
Zerain	97,4025974	Zumarraga	50,68060761
Morga	97,2513089	Arakaldo	48,13084112
Ataun	97,22753346	Zaratamo	46,99488491
Kortezubi	97,21448468	Sondika	46,91848907
Berriatúa	97,20207254	Sopelana	46,0256271
Mendata	96,97885196	Donostia-San Sebastián	45,55934681
Alkiza	96,88715953	Berango	45,08987286
Etxebarría	96,87906372	Górliz	44,95786109
Aulesti	96,73913043	Legutiano	44,67754468
Aia	96,34375	Lasarte-Oria	44,13855867
Bidegoyan	96,24697337	Ugao-Miraballes	43,78965349
Amezketá	96,18126273	Plentzia	43,17288802
Gabiria	96,16306954	Pasaia	42,58072105
Ereño	95,86466165	Galdakao	41,8986426
Elantxobe	95,84980237	Derio	40,86371528
Getaria	95,82616179	Rentería	40,2474359
Fruiz	95,65916399	Irun	37,69176805
Mutiloa	95,48192771	Leioa	34,70387067
Arratzu	95,44303797	Zalduondo	33,33333333
Zeanuri	95,2	Getxo	33,15405968
Mendexa	95,15151515	Ermua	32,47419658
Murueta	94,89795918	Llodio	32,44846017
Muxika	94,72558803	Arrigorriaga	32,37753295
Ezkio-Itsaso	94,63276836	Erandio	29,91317056
Dima	94,41747573	Artziniega	28,65035517
Zegama	94,37735849	Asparrena	28,64205669
Meñaka	94,33551198	Arrazua-Ubarrundia	26,22615804
Leaburu	94,26666667	Bilbao	26,04382848
Errigoiti	94,08482143	Alonsotegi	25,67284166
Aduna	93,79084967	Basauri	25,43129587
Arama	93,5483871	Lapuebla De Labarca	25,20759193
Ibarrangelu	93,41085271	Orduña	25,05767752
Arrieta	92,95010846	Okondo	24,96706192
Mañaria	92,45689655	Etxebarrí, Ant. De S. Est. - Etxebarri D. E.	24,72133758
Markina-Xemein	92,44348762	Ayala/Aiara	24,63328275
Belauntza	92,0212766	Salvatierra/Agurain	24,4049211
Lekitio	91,7145201	Vitoria-Gasteiz	23,90791981
Hernialde	91,55405405	Ortuella	23,54678639
Azpeitia	91,37448995	Valle De Trápaga-Trapagaran	22,80916634
Aramaio	91,21673004	Portugalete	21,96604446
Zaldibia	90,84093872	Zigoitia	21,64251208
Segura	90,81385979	Zalla	21,50182162
Arantzazu	90,6360424	Santurtzi	21,33170682

Udalerria	Derrigortasun indizea (1996)	Udalerria	Derrigortasun indizea (1996)
Garay	90,58577406	Urkabustaiz	21,09756098
Zestoa	90,41953663	Muskiz	21,06481481
Elgeta	90,33092037	Abanto Y Ciérvana-Abanto Zierbena	20,77898551
Asteasu	90,30874786	Sopuerta	20,12494422
Mutriku	90,1258264	Zierbena	20,09717314
Artea	90,01706485	Zuia	19,61538462
Zeberio	89,96598639	Barakaldo	19,25932277
Gamiz-Fika	89,92805755	San Millán/Donemiliaga	19,2251462
Ikaztegieta	89,83957219	Sestao	18,66446923
Idiazabal	89,74937343	Galdames	18,44416562
Alegia	89,30104231	Villabuena De Alava/Eskuernaga	18,14159292
Ea	89,20099875	Samaniego	18,12080537
Gautegiz Arteaga	88,91076115	Elburgo/Burgelu	18,08510638
Gatika	88,50787766	Iruraiz-Gauna	17,61083744
Ondarroa	88,0377546	Balmaseda	17,49052099
Orio	87,58670175	Arraia-Maeztu	17,32745962
Izurtza	87,31617647	Güeñes	17,22689076
Itsasondo	86,98854337	Gordexola	16,77148847
Ormaiztegi	86,47717485	Navaridas	16,5158371
Berrobi	86,18181818	Barrundia	15,93806922
Leintz-Gatzaga	84,55284553	Leza	15,65934066
Azkoitia	84,52452153	Labastida	15,03298775
Irura	84,52211127	Lanciego/Lantziego	14,67817896
Oñati	84,44637178	Elciego	14,53744493
Larrabetzu	84,18060201	Kuartango	14,15929204
Mundaka	83,79920137	Iruña Oka/Iruña De Oca	14,09205549
Bermeo	83,62216833	Campezo/Kanpezu	13,93967093
Deba	83,22541481	Carranza	13,87992253
Otxandio	82,9468599	Oyón-Oion	13,3378933
Forua	82,79792746	Kripan	13,21243523
Maruri-Jatabe	82,6584507	Trucios-Turtzioz	13,18785579
Mendaro	82,63403263	Amurrio	12,63284018
Oiartzun	82,53739931	Ribera Baja/Erribera Beitia	12,60964912
Igorre	81,44670051	Baños De Ebro/Mañueta	12,2324159
Mallabia	79,82292637	Laguardia	11,98435277
Zumaia	79,41176471	Peñacerrada-Urizaharra	11,4
Zarautz	79,25975414	Berantevilla	11,15288221
Antzuola	79,07465825	Añana	11,11111111
Anoeta	78,46420323	Elvillar/Bilar	10,90116279
Légorreta	78,02706553	Lagrán	10,78947368
Lezama	77,91501976	Ribera Alta	10,68627451
Ubide	77,8125	Moreda De Alava	9,821428571
Busturia	77,68569675	Yécora	9,6
Gernika-Lumo	77,27302697	Arcentales	8,860759494
Usurbil	76,07812802	Lantarón	6,968215159
Lemoiz	75,21315469	Zambrana	6,090651558
Bergara	75,0249186	Valdegovia	5,688282139
Villabona	75,004761	Harana/Valle De Arana	5,494505495
Ibarra	74,7637051	Bernedo	5,111524164
Sukarrieta	74,35483871	Lanestosa	4,810996564
Tolosa	73,99207248	Alegría-Dulantzi	4,437533227
Orozko	73,58184765	Armiñón	4,411764706
Lemoa	72,69167354		
Astigarraga	72,05976864		
Atxondo	70,98427888		
Aretxabaleta	70,69054147		
Areatza	70,22367195		
Hondarribia	69,8799435		
Zizurkil	69,327252		
Bakio	69,20821114		
Bedia	69,18781726		
Lazkao	67,91762492		
Ordizia	65,97385183		
Mungia	65,93959732		
Elgoibar	65,64691768		
Soraluze-Placencia De Las Armas	65,03424658		
Laukiz	64		
Eskoriatza	63,71501272		

2. eranskina: EAE-KO ORGANO JUDIZIALAK: BANAKETA ETA EGITEKOAK

1.- LURRALDE ANTOLAKETA

Ondorio judizialeterako, Estatuaren lurralde-antolaketa honakoa da: udalerriak, barruti judizialak, probintziak eta autonomia-erkidegoak.

- **Udalerria:** Izen bereko administrazio-mugapenarekin bat dator eta bake-epaitegia du zerbitzua emateko.
- **Barruti judiziala:** Udalerri batez edo probintzia bereko hainbat udalerri mugakidez osatutako lurralde-batasuna da eta Lehen Auzialdiko eta Instrukzioko epaitegi batek edo gehiagok osatzen dute. EAEn 14 barruti judizial daude, era honetan banatuta:
 - ✓ Araban, 2 barruti judizial, Amurriokoa eta Gasteizkoa.



- ✓ Bizkaian, 6 barruti judizial: Balmasedakoa, Barakaldokoa, Bilbokoa, Durangokoa, Gernikakoa eta Getxokoa.



- ✓ Gipuzkoan, 6 barruti judizial: Azpeitikoa, Bergarakoa, Donostiakoa, Eibarkoa, Irungoa eta Tolosakoa.



- **Probintzia:** Izen bereko administrazio-mugapeneko lurralde-mugekin bat dator. Gure autonomia erkidegoan, lurralde historiko bakoitzarekin bat dator eta bere izendapena Probintzia Auzitegia da.
- **Autonomia erkidegoa:** Auzitegi nagusien lurralde-eremuarekin bat dator. EA Eren kasuan, Auzitegi Nagusia Bilbon dago.

2.- JUSTIZIAREN BANAKETA AUTONOMIA ERKIDEGOAN.

BJLOk (Botere Judizialaren Lege Organikoa) ondorio judizialeko antolatzen ditu udalerriak, barrutiak, probintziak eta autonomia erkidegoak eta, jurisdikzio-ahalmenari dagokionez, badira bake-epaitegiak, lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegiak, administrazioarekiko auzietako epaitegiak, lan-arloko epaitegiak, espetxeratuen zaintzako epaitegiak, zigor-arloko epaitegiak, adingabekoen epaitegiak, probintzia-azitegiak eta auzitegi nagusiak. Organo hauen egitekoak, oro har, ondokoak dira:

- ✓ **AUZITEGI NAGUSIA** BJLOko 60. Artikulua eta hurrengoak

Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusia lurralde-eremu horretako antolaketa judizialean maila gorenean dagoen auzitegia da, beti ere Auzitegi Gorenari dagokion jurisdikzioari kalterik egin gabe. Autonomia-erkidegoaren izena du eta jurisdikzioa ere autonomia-erkidego horretako eremuan du.

Hiru Salek osatzen dute eta Sala horiek aztertzen dituzten delitu adierazgarrienak bakarrik aipatzen dira. Argibide eta zehaztasun gehiago behar izanez gero, lege organikoko artikuluetara jo daiteke.

- **Zibileko eta Zigor-arloko Sala:** Zibilean, autonomia-erkidegoko goi-karguek beren eginbehar profesionalean gauzatutako egintzak direla-eta jarritako erantzukizun zibileko demandak aztertzen ditu. Zigor-arloan, epaileen, magistratuen eta beste karguen aurkako auzien instrukzioaz eta epaitzaz arduratzen da, beti ere, Auzitegi Gorenari ez badagozkio.

- **Administrazioarekiko Auzietako Sala:** Autonomia erkidegoko gobernu-organoen egintzen aurkako administrazio-errekurtsoak aztertzen ditu bai eta administrazioarekiko auzietako epaitegietatik datozen apelazio-errekurtsoak ere.
- **Lan-arloko Sala:** Langile eta enpresaburuen arteko prozesuez arduratzen da; prozesu horiek lan-arloko epaitegi batek bidera ditzakeenak baino garrantzi handiagokoak dira, baina ez doaz autonomia-erkidegoaz haraindi.

✓ **PROBINTZIA AUZITEGIAK**

Probintzia auzitegiek probintziako hiriburu bakoitzean dute egoitza, eta hiriburu horren izena hartzen dute. Probintzia osoan dute jurisdikzioa. Bi sekzioz edo gehiagoz osatuta egon daitezke.

Zibileko eta zigor-arloko eskumenak dituzte. Zigor-arloan, 3 urte baino gehiagoko espetxe-zigorra duten delituak epaitzen dituzte, eta epaiak Auzitegi Gorenean helegitea jarri errekurri daitezke. Zigor-arloko eta instrukzioko epaitegietatik apelazioan datozen epaiak ere berrikusten dituzte. Zibilean, lehen auzialdiko epaitegietako epaiak berrikusten dituzte. Auzitegi honek emandako ebazpenak Auzitegi Gorenean errekurri daitezke. Lehen Auzialdian emandako ebazpen zibilen aurka, eta probintzia bereko zigor-arloko epaitegietako, espetxeratuen zaintzako epaitegietako, eta adingabekoen epaitegietako ebazpenen aurka jarritako errekurtsoak erabakitzen dituzte. Era berean, zinpekoekin egiten diren judizioez ere arduratzen dira.

✓ **LEHEN AUZIALDIKO ETA INSTRUKZIOKO EPAITEGIAK, ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZIETAKO EPAITEGIAK, LAN-ARLOKO EPAITEGIAK, ESPETXERATUEN ZAINZAKO EPAITEGIAK, ADINGABEKOEN EPAITEGIAK ETA ERREGISTRO ZIBILA** BJLOko 84. Artikulua eta hurrengoak. Legeak ezartzen dituen ondorengo prozedurak aztertzen dituzte.


- **Lehen auzialdiko epaitegia:** Norbanakoen arteko erreklamazioak aztertzen ditu. Bereak dituen gaiez gain, beste jurisdikzioei ez dagozkien gaiak ere aztertzen ditu. Norbanakoen arteko demandak, besteak beste: atzeratutako komunitate-kuotak, zirkulazio-istripuek sortutako kalteak, banantze eta dibortzioak, etab.
- **Instrukzioko epaitegia:** Delituak eta ustezko errudunak ikertzen ditu, eta, behar izanez gero, errudunen behin-behineko espetxeratzea agin dezake. Probintzia-auzitegiek eta zigor-arloko epaitegiek epaitu behar dituzten auzien instrukzioaz arduratzen da; halaber, delitu eta faltak instruitzen ditu, bai eta epaitza eman ere. Lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegiak banandu egin daitezke hori egitea egoki den barrutietan.
- **Administrazioarekiko auzietako epaitegia:** Administrazio Publikoak emandako ebazpenen aurkako auzi-errekurtsoak aztertzen ditu, beti ere Administrazioarekiko auzietako Salari ez badagozkio.
- **Lan-arloko epaitegia:** Enpresaren eta enpresako langileen artean sustatzen diren uziez arduratzen da; uziok gatazka kolektibo eta indibidualetan, Gizarte Segurantzako erreklamazioetan eta Estatuaren aurkako erreklamazioetan (lan-arloko legediak erantzukizuna esleitzen dionean) sor daitezke. Adibidez: irazpenak, soldata-erreklamazioak, erretiroak, etab. Jatorria lan-harremanetan duten erreklamazioak ebazten dituzte. Jurisdikzio honetakoak diren eta beste epaitegi edo


organoei esleitzen ez zaizkien gaiak aztertzen ditu.

- Espetxeratuen zaintzako epaitegia: Askatasuna kentzeko zigorren betearazpena kontrolatzen du eta espetxeratuen inguruko guztia erabakitzen du. Gure autonomia-erkidegoan Bilbon du egoitza. Epaitegi honek ematen dituen ebazpenak probintzia-
auzitegian apelatzen dira.
- Adingabekoen auzitegia: Legean adingabekoek burututako delitu edo falta gisa tipifikatuta dauden gertakariak aztertzen ditu.
- **Erregistro zibila:** Jaiotzaren, heriotzaren, bizi-agiriaren, nazionalitatearen, ezkontzaren, etab.en inskripzioak eta idatz-oharrak jasotzen dira Erregistro Zibilean.

✓ **BAKE-EPAITEGIAK**

Lehen auzialdiko eta instrukzioko epaitegirik ez dagoen udalerrietan bake-epaitegi bat egoten da. Epaitegi horrek udalerrri horretan dauka jurisdikzioa. Bake-epaileak ez dira karrera judizialekoak izaten. Antzina, bake-epaile izateko, udalerriko borondate oneko pertsona izan behar zen.





5. eranskina: JARDUERA PLANA

LAN ARLOA	HELBURUA	ARAZOAK	KONPONBI-DEAK	URRATSAK	ARDURA-DUNAK	EPEAK	KONTROL ADIERAZLEAK
Idatziz-ko kanpo harremanak	1.- Herritarrei zuzendutako dokumentu labur eta errazak ele bietan egitea	1.1.- Dokumentu horiek ez daude ele bietan terminaletan	1.1.1.- Dokumentu horiek ele bietan jartzea terminaletan, kopuru nahikoan	1.1.1.1.- Dokumentuak identifikatzea eta, garrantziaren eta lorgarritasunaren arabera, aukeratzea 1.1.1.2.- <i>Dokumentu horiek itzultzea</i> 1.1.1.3.- Dokumentu horiek aplikazio informatikoan eta idatzian jasotzea	Zibil: Jon Zigor: Ana <i>Itzulpen enpresa</i> CND (Normaliz. Batzorde)	Iraila <i>Urritik aurrera</i> Urtarrila	% eta kopuruak arloka % eta kopuruak arloka % eta kopuruak arloka
		1.2.- Dokumentu horiek izapidetu ahal izateko, funtzionariook ez gaude ohituta eta prestakuntza beharko dugu	1.2.1.- Prestakuntza jasotzea, dokumentu horiek bideratu ahal izateko ele bitan	1.2.1.1.- Ele bitan prestatutako dokumentuak probatu terminaletan 1.2.1.2.- Langileek zalantzak eta beharrak aurkeztu 1.2.1.3.- Dinamizatzailleek zalantzak aztertu eta argibideak eman eta bideratu (aholkularitza); behar izanez gero, saioak beren beregi antolatuz (trebakuntza: hizkera juridiko espezifikoa-orokorra...)			

LAN ARLOA	HELBURUA	ARAZOAK	KONPONBI-DEAK	URRATSAK	ARDURA-DUNAK	EPEAK	KONTROL ADIERAZLEAK
Idatziz-ko kanpo harremanak	2.- Gure bulego judizialek beste erakundeei zuzendutako dokumentu labur eta errazak ele bietan egitea	2.1.- Dokumentu horiek ez daude ele bietan terminaletan	2.1.1.- Dokumentu horiek ele bietan jartzea terminaletan	2.1.1.1.- Dokumentuak identifikatzea eta aukeratzea, garrantziaren eta lorgarritasunaren arabera (aurreko helburuan kontuan izan dira dokumentu guztiak) 2.1.1.2.- Dokumentu horiek itzultzea 2.1.1.3.- Dokumentu horiek aplikazio informatikoan eta idatzian jasotzea			
		2.2.- Dokumentu horiek izapidetu ahal izateko, prestakuntza beharko dugu funtzionariook	2.2.1.- Prestakuntza jasotzea, dokumentu horiek bideratu ahal izateko ele bitan	1.2.1.1.- Ele bietan prestatutako dokumentuak probatu terminaletan 1.2.1.2.- Langileek zalantzak/beharrak aurkeztu 1.2.1.3.- Dinamizatzailerik zalantzak aztertu eta argibideak eman eta bideratu (aholkularitza); behar izanez gero, saioak beren beregi antolatuz (trebakuntza: hizkera juridiko espezifikoa-orokorra...)			
		2.3.- Beste erakundeak ez daude ohituta dokumentu horiek ele bietan ikusten eta egiten	2.3.1.- Dokumentu horiek egiten hasi eta bideratu aurreko gaztelaniazkoak bezalaxe, baina ele bitan	2.3.1.1.- Dokumentu horiek ele bitan emititzen hasi 2.3.1.2.- Dokumentu horiek beste erakundeei ekar liezazkieketen zalantzak eta eragozpenak jaso 2.3.1.2.- Dokumentuak doitu eta inplementatu erakunde guztietara			

LAN ARLOA	HELBURUA	ARAZOAK	KONPONBIDEAK	URRATSAK	ARDURA-DUNAK	EPEAK	KONTROL ADIERAZLEAK
Hizkuntza paisaia	3.- Gure bulego judizialean herritarrentzat dauden iragarki-taulak ele bietan izatea, hau da, euskaraz eta gaztelaniaz izatea.	3.1.- Ez dago iragarki-taulak ele bietan izateko diseinurik	3.1.1.- Iragarki taulak diseinatzea	3.1.1.1.- Dauden iragarki taulak identifikatzea eta xehetasunak adieraztea 3.1.1.2.- Iragarki-taulak itzultzea 3.1.1.3.- Diseinua egitea			
		3.2.- Ez dago, oraingoz, ez baimenik ez dirurik iragarki-taula horiek ele bietan jartzeko	3.2.1.- Baimenak eta dirulaguntzak eskuratzea iragarki-taulak ele bietan izateko	3.2.1.3.- Baimenak lortu: ofizioak Eusko Jaurlaritzara eta EAT*ra bideratu. 3.2.1.4.- Diseinua egin eta aurrekontua eskatu 3.2.1.5.- Dirulaguntza bideratu 3.2.1.6.- Iragarki-taulak jarri EAT*: Eusko Jaurlaritzaren Justizia Sailburuordetzak lurralde historiko bakoitzean duen organo delegatua.			

LAN ARLOA	HELBURUA	ARAZOAK	KONPONBIDEAK	URRATSAK	ARDURA-DUNAK	EPEAK	KONTROL ADIERAZLEAK
Idatzizko kanpo harremanak	4.- Gure bulego judizialeko langileok/ oi zuzendutako dokumentu formalak ele bietan egitea, hau da, euskaraz eta gaztelaniaz egitea.	4.1.- Ez daude guztiak ele bietan, eta daudenak egokiera eskasean daude	4.1.1.- Langileek/ ei zuzendutako dokumentu guztiak ele bietan jartzea, bideragarri izanez gero	4.1.1.1.- Langileek/ oi zuzendutako dokumentu formalak identifikatzea eta laginak eskuratzea 4.1.1.2.- Bideragarriak direnak hautatzea 4.1.1.3.- Aukeratutako dokumentu horiek itzultzea 4.1.1.4.- Adostasunak lortu eta inplementatzen hastea			

6. eranskina: GALDESORTA

NOLA DAGO GURE BULEGO JUDIZIALA EUSKARARI DAGOKIONEZ?

KANPO HARREMANAK		Gaztela- nia hutsez	Gehiena gaztelaniaz	Bietan berdin	Gehiena euskaraz	Euskara hutsez
------------------	--	------------------------	------------------------	------------------	---------------------	-------------------

Ahozko harremanak

• Ahozko harremanak herritarrekin, bezeroekin eta beste erakundeekin telefonoz edo leihatilan.	1	2	3	4	5
--	---	---	---	---	---

Idatzizko harremanak

• Herritarrei zuzenduta dauden dokumentu labur eta errazak (testu librerik ez dutenak: jakinarazpenak, zedulak, komunikazioak...)	1	2	3	4	5
---	---	---	---	---	---

• Gure bulego judizialek herritarrei zuzendutako dokumentu konplexuak (testu librea dutenak)	1	2	3	4	5
--	---	---	---	---	---

• Gure bulego judizialek beste erakundeei zuzendutako dokumentazio labur eta erraza (testu librerik ez dutenak: NOTP, OFIC...)	1	2	3	4	5
--	---	---	---	---	---

• Beste erakundeei zuzendutako dokumentazio konplexua (testu librea dutenak)	1	2	3	4	5
--	---	---	---	---	---

JARRERAK		Ez nago batere ados				Gutiz ados
----------	--	---------------------------	--	--	--	------------

• Esperientzia pilotuan parte hartu nahi dut	1	2	3	4	5
--	---	---	---	---	---

• Euskara ikasten jarraitzeko asmoa dut	1	2	3	4	5
---	---	---	---	---	---

PRESTAKUNTZA		3. urratsetik behera	4-5 urratsa	6 urratsa	7-9 urratsa	10. urratsetik gora
--------------	--	----------------------------	-------------	--------------	----------------	------------------------

• Nire euskara maila	1	2	3	4	5
----------------------	---	---	---	---	---

BARNE HARREMANAK		Gaztela- nia hutsez	Gehiena gaztelaniaz	Bietan berdin	Gehiena euskaraz	Euskara hutsez
------------------	--	------------------------	------------------------	------------------	---------------------	-------------------

Ahozko harremanak

• Ahozko harremanak nire organo judizialeko langileekin, telefonozko edo ahoz (laneko kontuak direnak eta ez direnak)	1	2	3	4	5
---	---	---	---	---	---

Idatzizko harremanak

• Guk sortu eta gure bulego judizialean gelditzen diren dokumentu judizial laburrak	1	2	3	4	5
---	---	---	---	---	---

• Bulego judizialeko langileon artean banatzen ditugun dokumentuak (afari informaletara apuntatzeko orriak...)	1	2	3	4	5
--	---	---	---	---	---

• Bulego judizialeko langileoi zuzenduta dauden dokumentu formalak (nomina-orria, oporrak aukeratzeko orria...).	1	2	3	4	5
--	---	---	---	---	---

HIZKUNTZA PAISAIA		Gaztela- nia hutsez	Gehiena gaztelaniaz	Bietan berdin	Gehiena euskaraz	Euskara hutsez
-------------------	--	------------------------	------------------------	------------------	---------------------	-------------------

• Gure bulego judizial barruan langileentzat eginda dagoen errotulazioa	1	2	3	4	5
---	---	---	---	---	---

• Gure bulego judizialeko langileen iragarki taula (iragarkiak, oharra...)	1	2	3	4	5
--	---	---	---	---	---

HIZKUNTZA PAISAIA		Gaztela- nia hutsez	Gehiena gaztelaniaz	Bietan berdin	Gehiena euskaraz	Euskara hutsez
• Gure bulego judizialean herritarrentzat eginda dauden errotulu nagusiak		1	2	3	4	5
• Gure bulego judizialean herritarrentzat eginda dagoen iragarki taula		1	2	3	4	5
• Bulego judizialek kanpo bidaltzen diren fax-orriak eta gutun azalak		1	2	3	4	5
• “www.justizia.net” web orria		1	2	3	4	5